



ARZELUS, Ander

Euskal Eurohiriaren Garapenerako Mugaz Gaindiko Agentzia
Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Kabinetea
20004 Donostia
agency1@eurocity.gipuzkoa.net



MOREDA, Helena

Euskal Eurohiriaren Garapenerako Mugaz Gaindiko Agentzia
Baiona-Angelu-Biarritz Aglomerazio Komunitatea
64100 Baiona
e.moreda@agglo-bab.fr



SARAGUETA, Felipe

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren arduraduna
Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa
Kostorbe Eraikina. Iparralde etorbidea z/g
20304 Irun
fsaragueta@bidasoa-activa.com

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 37-63]

Muga: gainditzeke dagoen errealitatea

(The frontier: a reality to surpass)

Artikulu honek, Donostiatik Baionara doan lurraldean, mugei gainera elkarlana garatzeko ahaleginetan kokaturik dauden bi errealitateen deskribapena egin nahi du: Baiona-Donostia Euskal Eurohiria eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa. Bi proiektuek mugak bereizten duen biztanleria euskaldunaren bizikidetzara, elkarlana eta esparru fisiko komuna era koherentean eraikitzearen erreflexioa bultzatu nahi dute. Lan honek, gaur egungo legediaren atzetik nola burutu daitekeen eta horretarako zein baliabide dauden adierazi nahi du, esperientzia bakoitzaren deskribapena egiteaz eta lan honetarako dauden zailtasun ugariak salatzeaz gain.

El presente artículo gira en torno al análisis de la Eurociudad Vasca Bayonne-San Sebastián y del Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi, dos proyectos dirigidos a fomentar la cooperación transfronteriza del territorio localizado entre las ciudades de Donostia y Baiona, así como a establecer las bases para la construcción de un espacio físico común que favorezca la convivencia y cooperación de los ciudadanos vascos de ambos lados de la frontera. Además de exponer ambas experiencias y denunciar las numerosas dificultades que se presentan, se procede a examinar las opciones que ofrece el actual marco jurídico y los medios existentes para su desarrollo.

Cet article analyse l'Eurocité Basque Bayonne-Saint-Sébastien et le Consortium Transfrontalier Bidasoa-Txingudi, deux projets consacrés à encourager la coopération transfrontalière du territoire localisé entre les villes de Donostia et Baiona, ainsi qu'à établir les bases pour la construction d'un espace physique commun qui favorise la cohabitation et la coopération des citoyens basques des deux côtés de la frontière. En plus d'exposer les deux expériences et de dénoncer les nombreuses difficultés que se présentent, on procède à l'examen des options qu'offre le cadre juridique actuel et les moyens qui existent pour son développement.



1. **Sarrera.** 2. **Muga kontzeptua.** 3. **Mugaz Gaindiko Lankidetzaren bi praktika erreala Euskal Herrian:** 3.1. Mugaz Gaindiko Lankidetzaren kontzeptua. 3.2. Lankidetzarako Instantziak eta Mugaz Gaindiko Egiturak. 3.3. Esparru juridiko orokorra. 4. **Esparru juridiko orokorra:** 4.1. Lurralde kolektibitate edo agintarien mugaz gaindiko lankidetzarako Hitzarmen Marko Europarra. 4.2. Baionako Ituna. 4.3. Lankidetzarako protokoloa Akitania, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean. 5. **Irudi juridikoak:** 5.1. Mugaz Gaindiko Partzuergoa. 5.2. Interes Ekonomikoko Talde Europarra: 5.2.1 Bost arrazoi on IETEA lehenesteko. 5.2.2. "Neurriko" lankidetzakontratuak. 5.2.3. Taldeari aplikatu dakiokkeen legea. 5.2.4. Partaidetza merkatu publikoetan. 5.2.5. Europako edo Estatu barruko programa batzuetan esku hartzeko eskatzen diren ezaugarri bereziak. 5.2.6. Regie sarea: IETEA sare europarra. 6. **Mugaz gaindiko lankidetzaren bi praktika erreala Euskal Herrian:** 6.1. Bidasoa-Txingudi partzuergoaren aurkezpena. 6.1.1. Partzuergoaren proiektuak. 6.2. Baiona-Donostia Euskal Euroherria. 6.2.1. Aurkezpena eta helburua. 6.2.2. Adostasun metodologia. 6.2.3. Mugaz Gaindiko Agentzia: tresna juridiko eragilea. 6.2.4. Gogoetatik ekintzetara. 6.2.5. Konurbazio lurraldearen antolamenduari buruz gogoeta egiteko "atelierra" eta Liburu Zuria. 6.2.6. Lurralde informazioarako sistemak integratzeak duen garrantzia.

1. Sarrera

Artikulu honek, Donostiatik Baionara doan lurraldean, mugen gainetik elkarlana garatzeko ahaleaginean kokaturik dauden bi errealitatearen deskribapena egin nahi du, beronen gaineko erreflexioa bultzatzeko asmoz.

Baiona-Donostia Euskal Euroherria eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa, eremu fisiko horretan ildo berean lanean dabilzan bi esperientzia dira; lehena erreflexio eta sustapen prozesu batean murgildua, eta bigarrena, tokiko eremu batean eragile moduan, proiektu zehatz eta hautemangarrien bultzatzaile.

Diferentziaz gain, bi proiektuek mugak bereizten duen biztanleria euskaldunaren, bere desberdintasun eta lotura komunekin, bizikidetzaren, elkarlana eta esparru fisiko komuna era

koherentean eraikitzeke erreflexioa bultzatu nahi dute azken helburu modura.

Lan honek, gaur egungo legediaren atzerapean nola burutu daitekeen eta horretarako zein baliabide dauden adierazi nahi du, esperientzia bakoitzaren deskribapena egiteaz eta lan honetarako dauden zailtasun ugariak salatzeaz gain.

Europaren eraikuntzaren laborategiak deitu izan diren mugaz bereizturiko lurraldeen naturalizazio prozesuan aurrekari gisa diharduten adibideak ditugu, gizartearen beharrei erantzun bidean komunitate juridikoaren eta eragile politikoaren laguntza eta bultzada behar dutenak.

2. Muga kontzeptua

Estatu baten Mugak xedapen konbentzionalen bidez zehazten dira gehienetan, eta xedapen horiek Estatu mugakideen artean negoziatzen dira, izaera politikoko¹ irizpitan oinarrituta.

Kategoria juridikoari dagokionez, Mugak, Estatu bakoitzak bere agintea erabil dezakeen lurra mugatzeko eta gainerako Estatuari lur horretan² jardun ez dezaten exijitzeko balio badu ere, eta Estatu Nazionalak agertu zirenetik Estatuaren eskuduntzak³ bereizteko lima gisa jardun duen arren, komeni da muga aztertu duten internazionalistek muga kontzeptu hori azaltzeko erabili dituzten bi termino bereiztea, hau da, "Frontier" eta "Boundary":

- "Frontier" harreman-eremua da, eremu horretan hurbiltasun edo auzotasun harremanak dituzte Estatu mugakideek eta bertan bizi diren alde bateko eta bestekoei abantailak eskaintzen dizkie harreman horrek.
- "Boundary", ordea, Estatuaren eskuduntzak bereizten dituen banalerroa da⁴.

De Vischer idazleak honako Muga nozio hau eskaintzen digu: "interes komunek Estatu mugakideen artean sortarazten dituzten betebeharrak gauzatzeko eremu egokia", eta "bi espazio hurbil egoteak sortzen dituen elkarrekiko mendetasun harremanen arabera dentsitate eta sakontasun aldakorak dituen eremua⁵".

1. Carlos FERNANDEZ DE CASADEVANTE. *La Frontera Hispano-Francesa y las Relaciones de Vecindad*, Donostia, 1989, 583 orrialde; 21. or.
2. Carlos FERNANDEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 22. or.
3. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *La Institucionalización Jurídica y Política de Vasconia*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 189 orrialde; 157. or.
4. Carlos FERNANDEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 24. or.
5. Carlos FERNANDEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 24. or.

Nozio hori oso egokia iruditzen zaigu egungo Europako Batasunaren testuinguruaren barnean, 1993. urteaz geroztik mugen oztoporik ez duen esparru horretan, “bi Estaturen arteko Muga ekonomia, kultura eta politika mailan espazio berriak sortzeko eragozpen izan ez dadin eta bereizteko egin ziren Mugen ondorioz historian sortutako arrastoak ezabatu ahal izateko”⁶.

3. Mugaz Gaindiko Lankidetzak

3.1. Mugaz Gaindiko Lankidetzak kontzeptua

Muga orok ditu, Estatu mugakideak gatazkan ari direnean izan ezik, ezin banandu diren bi alderdi: alde batetik, lurak eta Estatu bakoitzaren eskuduntzak bereizteko muga da, eta bestetik, elkarlana da, tratamendu bateratua eskatzen duten kontuak edo arazoak behar bezala bideratu ahal izateko⁷.

Lankidetzari dagokionez, Estatu mugakideek elkarren artean egin behar dute lan eta, horretarako, bide konbentzionala erabiltzen dute gehienetan; hau da, beren harremanen intentsitatearen arabera, auzotasun erregimen bat sortzen dute Estaturen artean⁸.

Mugaz Gaindiko Lankidetzak elkarlan zuzena da, auzotasun onean egiten den lana esparru guztietan, Estaturen artean ez ezik, mugan dauden eremuetako herrialdeko eta tokiko agintarien artean ere, eta agente guztiek hartu behar dute parte⁹.

Europa Estatu nazionaletan eratu ondoren, erabat hautazkoak ziren muga batzuk zehaztu ziren bere garaian, eta Mugaz Gaindiko Lankidetzak tradizio handiko jardura bihurtu zen, muga batek bereizten zituen lurralde eta kolektibitateen esparruan bereziki.

Mugaz Gaindiko Lankidetzak berezkotasuna izan du beti ezaugarri, kasu berezi batzuetan izan ezik, izatezko bidez egin baita, nazioarteko ordenamendu juridikoa albo batera utzita¹⁰.

“ Mugaz Gaindiko Lankidetzak elkarlan zuzena da, Estaturen artean ez ezik, mugan dauden eremuetako herrialdeko eta tokiko agintarien artean ere, eta agente guztiek hartu behar dute parte ”

3.2. Lankidetzarako Instantziak eta Mugaz Gaindiko Egiturak

Mugaz Gaindiko Lankidetzak 4 Instantzia desberdinetan bidera daiteke:

- a) Gobernu mailan, Estatuetakoa botere zentralen artean. Lankidetzak hori “auzotasun harremanek” eratzen dute, Nazioarteko Ituna da dagokion tresna juridikoa, eta Lan-batzorde, Lan-talde eta antzekoen bidez instituzionalizatzen da (esate baterako: Pirinioetako Nazioarteko Batzordea, 1875. urtean sortua).
- b) Lurralde mailan, Kantonamendu mailan, maila Federalean edo antzeko beste egitura batzuetan, lurraldeko botereen, kantonamenduko botereen, botere federalen edo antzekoen artean. Bere organismoak Nazioarteko Itunen bidez sortzen dira Estaturen artean, edo bestela, beren ekimenaren bidez botereen artean sortzen dira dituzten

6. Eneko LANDABURU (DG XVI Europako Batzordea). Diario Vasco, 1999/12/10; 7. or.

7. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Cooperación Transfronteriza Euskadi-Aquitania*. Bilbo, 1994, 262 orrialde; 16. or.

8. Carlos FERNADEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 42. or.

9. ASOCIACION DE REGIONES FRONTERIZAS EUROPEAS (ARFE). *Aspects Institutionnels de la Coopération Transfrontalière*. 1999ko Martxo, 81 orrialde; 1. or.

10. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 157. or. eta hurrengoak.

eskuduntzen esparruan (esate baterako: Pirinioetako Lan Komunitatea, kideek hartutako erabakiaren bidez sortu zena 1983/11/4an).

- c) Toki mailan, bi Estatu mugakideetako udalerrien artean.
Era honetako lankidetzaz aurrera eramane daiteke bai Nazioarteko Itun bat dagoelako, bai barne ordenamenduak horretarako aukera ematen duelako, bai parte hartzen duten tokiko erakundeek eskuduntzen barneko kontuak direlako (esate baterako: XIX. mendeko Mugaldeko Itunak Frantziako eta Espainiako Estatuaren artean).
- d) Modu pribatuan, bi Estatuetak erakunde pribatuaren artean.
Lankidetzaz mota honen adibide gisa eta ikuspegi instituzionaletik begiratuta, 1987/12/14ko Protokoloaren bidez sortutako Bidasoako Bitariko Batzorde Teknikoan, Bidasoa ibaiaren esparru geografikoan sortzen diren kontuetan eskuduntza duten gobernu, lurralde, herrialde eta tokiko botereen ordezkariak batera hartzen dute parte¹¹.

Europako Batasunaren esparruan dauden Mugaz Gaindiko Egiturei dagokienez, honako hauek bereiz ditzakegu:

- a) Eurolurraldeak. Eurolurraldea osatzen duten Mugaz Gaindiko Egiturak, dauden organo publiko edo pribatuentzako trukerako espazioak dira (esate baterako: Midi Pyrénées Eurolurraldea, Languedoc-Roussillon, Katalunia).
- b) Lan Komunitateak eta beste Egitura batzuk. Lurraldeko edo Tokiko Agintariak berezko nortasun juridikorik ez duen Lankidetzarako Protokolo edo derrigorrezko Akordio bat sinatu izan dute lankidetzaz aurrera eramane ahal izateko (esate baterako: Pirinioetako Lan Komunitatea, Extremadura/Alentejoko... Lan Komunitatea).
- c) Berezko nortasun juridikoa duten Erakundeak edo egiturak. Era horretako erakundeak tokiko agintariak garatu

dituzte nagusiki. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa eta Baiona-Donostia Euskal Eurohiria garatzeko Mugaz Gaindiko Agentzia ditugu egitura mota horren adibide garbientakoak.

- d) Interreg edo beste Programa Komunitario baten arabera sortutako egitura espezifikoak. Hasiera batean egitura horien helburua programa komunitarioak kudeatzea bazen ere, mugaz gaindiko lankidetzarako beste jarduera batzuetaz arduratzen diren mugaz gaindiko egitura bihurtu dira azkenik¹².

3.3. Esparru juridiko orokorra

Mugaz Gaindiko Lankidetzaz gehienetan izatezko bidez gauzatu bada ere, nazioarteko ordenamendu juridikoa albo batera utzita¹³, denboraren joanean Esparru juridiko orokor bat sortu da. Euskal inguruaren kasuan honako era honetan geratu da esparru juridiko hori:

- a) Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Marko Europarra, Madrilen onartua 1980/5/25ean eta bere 2. Protokolo Osagarriak, 1995/11/9koa lehenengoa eta 1998/5/5koa bigarrena; guztiak ere Europako Kontseiluak onartuak¹⁴.
- b) Euskadi-Akitania-Nafarroa Hitzarmena, Iruñean sinatua 1992/02/13an¹⁵.
- c) Midi Pyrénées Lurraldearen eta Euskal Herriaren arteko Lankidetzarako Protokoloa, iparraldeko Tolosan sinatua 1996/12/12an¹⁶.
- d) Baionako Ituna, lurralde erakundearen arteko Mugaz Gaindiko lankidetzaz buruzkoa, Baionan egina 1995/3/10ean¹⁷.
- e) Tokiko esparruan, XIX. Mendeko Mugaldeko Itunak, 1852, 1862 eta 1866koak, Frantziako eta Espainiako Estatuaren artean sinatuak¹⁸.

11. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 16. or. eta hurrengoak.

12. ASOCIACION DE REGIONES FRONTERIZAS EUROPEAS (ARFE). *Op Cit.*; 10. or. eta hurrengoak.

13. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 158. or.

14. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 160. or. eta EUROPAKO KONTSEILUA, Lurralde Kolektibitate edo Agintarien Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Markoaren Testua; Madrilen, 1980/5/21.

15. Eusko Jaurlaritzako Gobernu Idazkaritza eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 3/1998 Erabakia, urtarrilaren 28koa.

16. Eusko Jaurlaritzako Gobernu Idazkaritza eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 3/1998 Erabakia, urtarrilaren 28koa.

17. EHAA, 1997/3/10.

18. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 19 eta 52. orr.

f) Gainera, Frantziaren kasuan honako hauek aplika daitezke: 1982ko 82-213 Deszentralizazio Legea, Tokiko Kolektibitateen kanpo ekintzari buruz Lehen Ministroak eginiko Zirkularrak, 1985 eta 1987koak, eta 1992/2/6 Legea, Errepublikaren Lurralde Administrazioari buruzkoa¹⁹.

Mugaz Gaindiko Lankidetzak funtsezko fenomeno bihurtu da Europako bateratze prozesuan²⁰, eta Mugaz Gaindiko Lankidetzak eta Europa Eraikitzeko prozesuak desagerrarazi egin behar dituzte Historian zehar herrien artean sorturiko oztopoak²¹.

Locatelliren hitzetan, "Mugaz Gaindiko Lankidetzak, edozein dela ere bere modua, edozein dela ere oraindik bere indarra, test bat da, integrazio europarrerako espirituaren eta borondatearen adierazgarri eta borondate horren maila gutxi gora-behera hedatua katalizatze esperientzia"²².

4. Esparru juridiko orokorra

4.1. Lurralde kolektibitate edo agintarien mugaz gaindiko lankidetzarako Hitzarmen Marko Europarra

Madriren 1980ko maiatzaren 21ean sinatu ondoren, Hitzarmen hau 1981eko abenduaren 22an hasi zen indarrean eta 16 Estatuk²³ berretsi dute, Estatu frantsesak (1984ko otsailaren 14an) eta espainiarrak haien artean (1990eko uztailaren 10ean)²⁴, guztiak ere Europako Kontseiluko kideak, horixe baita, hain zuzen ere, testu hori aldarrikatzen duen organoa.

Estatuaren esparrua gainditu eta lurralde kolektibitateek Europako Batasunean parte har dezaten ziurtatzeko Europako Kontseiluaren nahian du jatorria hitzarmen horrek eta, batasun hori estuagoa izan dadin, Europako Kontseiluko²⁵ kideen artean lankidetzak sustatu nahi du.

Europako Kontseiluko tokiko kolektibitateen ministro arduradunen lehen bileran proposatu zen lehen aldiz Hitzarmen-marko Europarra prestatzeko aukera, bilera hori Parisen egin zen

1975eko azaroaren 20 eta 21ean, eta gero, 1976ko azaroaren 25etik 27ra Atenasen egin zen bilera ere gauza bera proposatu zen.

1979ko urriaren 11n, Europako Kontseiluko Batzar Parlamentarioak 96. Diktamena (1979) eman zuen Tokiko kolektibitate edo agintarien Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Markoaren proiektuaren inguruan, eta tokiko kolektibitateen ministro europar arduradunen 4. konferentzia izan zen. Konferentzia hori 1980ko maiatzaren 21-23an egin zen Madriren, Hitzarmen horri azken babesa eman zion, eta bidea zabalik geratu zen Estatu partaideek sina zezaten.

Hitzarmen horrek mugaz gaindiko harremanen esparruan euskarri juridikoa eskaintzen du eta zegoen hutsune juridikoa betetzen du, baina era berean, halako zaintza eta kontrol neurri batzuk ematen dizkie Estatuei Estatu-subiranotasun printzipioa errespetatu dadin²⁶.

Hitzarmenaren testuak 12 artikuluko ditu eta sarrera edo hitzaurre bat du hasieran. Bertan jasotzen diren kontuan hartu beharrekoek Europako Kontseiluaren helburua egiaztatzen dute, hau da, kideen artean batasun estuagoa izatea, eta helburu hori lortu ahal izateko, Tokiko Kolektibitate edo lurralde agintarien partaidetza ziurtatu nahi du Europako Kontseiluak. Era berean, xede hori lortzeko lanean mugaldekotoki kolektibitate edo lurralde agintariak hainbat kontutan benetako garrantzia dutela azpimarratzen da, lurralde, hiri eta landa garapenean, ingurumenaren babesean, hiritarrei eskaintzen zaizkien azpiegitura eta zerbitzuen hobekuntzan, esate baterako.

Hitzarmen Markoaren helburua bere lehen artikuluko jasotzen du, eta zera dio: "mugaz gaindiko lankidetzak erraztu eta sustatu behar da lurralde kolektibitate edo agintarien artean", eta horretarako "beharrezko akordioak hartu behar dira", baina "aldean eskuduntza konstituzionalak errespetatzeko" muga kontuan hartuta betiere.

Hitzarmen Markoaren 2. artikuluko, Hitzarmen honen esparruari begira Mugaz Gaindiko Lankidetzak zer den zehazten du, eta Mugaz Gaindiko Lankidetzat hartzen ditu parte hartzen duten aldean menpeko lurralde agintari edo kolektibitateen artean auzotasun harremanak sendotu eta garatzeko hartzen diren erabaki eta

19. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 19. eta 52. orr.

20. Román SODUPE. *Diario Vasco*, 1999/12/10. 6. or.

21. Eneko LANDABURU. *Egunkaria*, 1999/12/10. 6. or.

22. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 61. or.

23. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 22. or.

24. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 76. or.

25. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 111. or.

26. Carlos FERNADEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 83. or. eta hurrengoak.

akordio guztiak, lurralde kolektibitate edo agintarien eskuduntzen muga kontuan hartuta betiere, barne zuzenbideak zehazten duenaren arabera²⁷.

Era berean, 2.2 artikulua Hitzarmenaren aukerei beste muga bat jartzen die, parte hartzen duten Estatuak beren aplikazio esparrua kanpo utzi edo muga baitezakete.

Hitzarmen Markoaren 3.1 artikulua, Hitzarmen horrekin batera doazen eredu eta eskemetara jotzen du (eredu eta eskema horiek geroago aipatuko ditugu), eta 3.4 artikulua Estatu bakoitzaren Barne Zuzenbidea aipatzen du berriro ere, hala Estatuarteko nola lurralde edo hiriarteko akordioak hartzeko, Alde bakoitzeko barne zuzenbideak nazioarteko harremani eta orientabide politiko orokorrari begira aurreikusten dituen eskuduntzak errespetatu behar direla adierazten baitu, eta errespetatu egin behar dira, era berean, lurralde kolektibitate edo agintariak bete behar dituzten kontrol edo tutela arauak.

Gainera, Hitzarmen Markoaren Azalpen Txostenak argi uzten du Hitzarmen horrek ez diela mugaz gaindiko harremani "nazioarteko" izaera eman nahi. Horrek guztiak agerian uzten du Estatu guztietan organo zentralen eta lurraldeko eta tokiko organoen artean zegoen mesfidantza²⁸.

4., 5., 6. eta 7. artikuluek adierazten dute parte hartzen duten Estatuak lurralde agintari edo kolektibitateei laguntzeko betebeharra dutela mugaz gaindiko lankidetzaren behar bezala bidera dadin, eta erraztasunak, informazioa eta beharrezko baliabideak emango zaizkie lankidetzaren hori barne esparruan gauzatzen bada.

Hitzarmen Markoaren 8. artikulua adierazten du Aldeek Europako Kontseiluko Idazkaritza Nagusiari Hitzarmen honen gai diren alorretan hartutako akordioei buruzko informazio guztia emateko betebeharra dutela. Era berean, Hitzarmen hori osatu edo garatzeko proposamenen edo bertan jasotako akordiorako eredu berri emango diote. Idazkaritza Nagusiak Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeari igorriko dio proposamen hori.

Hitzarmen Markoaren 9. artikulua Aldeek hitzarmen hori berresteko eman beharrek urratsak eta indarrean hasia jasotzen ditu. Berrespen hori laugarren berreste-tresna eman ondoren egitea aurreikusten zen, baldin eta berretsi duten Estatuak bik gutxienez muga komuna badute.

Frantziako eta Espainiako Estatuaren kasuan, Frantziakoak 1984ko otsailaren 14an eman zuen berrespena eta Espainiakoak 1990eko uztailaren 10ean. Bi kasuetan Estatuaren arteko akordioak sinatzeko baldintzaren menpean jartzen da Hitzarmenaren aplikazioa, eta Espainiaren kasuan, horrelako akordiorik ez dagoenez, inplikaturiko Aldeen Gobernuen onarpen espresua eskatuko da²⁹.

Hurrengo artikuluetan (10, 11 eta 12) Europako Kontseiluko kide ez diren Estatu batzuk atxikitze aukera, Hitzarmenaren salatzeko aukera eta Europako Kontseiluko Idazkaritza Nagusiak Hitzarmenari atxikitzen zaizkion edo parte hartzen duten Estatu guztiei informazioa emateko betebeharra jasotzen dira.

Azkenik, Hitzarmenaren Eranskin gisa, Mugaz Gaindiko Lankidetzaren alorreko akordio, estatutu eta kontratuen ereduak eta eskemak azaltzen dira. Bi moldekoak dira:

- Mugaz Gaindiko Lankidetzari buruzko Estatuarteko akordioaren ereduak lurralde eta toki mailan.
14 eredu jasotzen dira, horietatik mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzeko akordioak eta mugaz gaindiko lurralde itunak lortzeko akordioak Estatuaren eskuduntzakoak dira soilik, eta gainerakoek lurralde agintari eta kolektibitateen artean akordioak edo kontratuak egin ahal izateko esparru juridikoa zehaztu baino ez dute egiten. Beren eskemak Akordioaren Eskemen bigarren moldean daude sailkatuta.
- Lurralde Agintari edo Kolektibitateen arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzaren euskarri izan daitezkeen akordio, estatutu eta kontratuen eskemak.
16 eskema molde jasotzen dira. Akordio, estatutu edo kontratu horiek modu autonomoan egin daitezke edo alde aurretik hartutako Estatuarteko akordio batzuei loturik egon daitezke.

Hitzarmen Markoaren Azalpen Txostenaren arabera, akordioaren eredu horiek, Estatuak lurralde kolektibitateak jardunean ikusi nahi dituzten esparruak, moduak eta mugak xehe zehaztea dute helburu, eta era berean, arazoak sor ditzaketan ezbaia juridikoa baztertu nahi dituzte³⁰.

27. EUROPAKO KONTSEILUA, Lurralde Kolektibitate edo Agintarien Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Markoaren Testua; Madril, 1980/5/21.

28. Carlos FERNADEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 86. or.

29. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 24. eta 25. orr.

30. Carlos FERNADEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 88. or.

Doktrinak Hitzarmen Markoa kritikatu du hainbat ikuspuntutik begiratuta. Hitzarmen horrek jasotzen dituen formulen zehaztasun ezean oinarritzen dira kritikak eta hainbat alorretan egiten diren aipamenak, Estatu bakoitzaren barne zuzenbidearen, Hitzarmenaren aplikazioa mugatzeko ahalmenen, Estatuko lurraldeko eremu batzuk hitzarmen horretatik kanpo uzteko aukeraren, nazioarteko harremanen alorrean eskuduntza zentralak errespetatzearen ingurukoak, eta tutela edo kontrolaren ingurukoak ere, Estatu Partaideetako botere zentralen eskuetan tresna arriskutsuak direla diote³¹.

Era berean, Mugaz Gaindiko Lankidetzari argi eta garbi onartzen duen aldetik testua aurrerapausoa izan zela onartuta ere, Doktrinak baieztatzen du aurrerapauso hori oso mugatua dela, Hitzarmenak ez baitu kontuan hartzen lurralde kolektibitateen ekimen-ahalmena; izan ere, ez ditu arautzen sor litezkeen mugaz gaindiko lankidetzarako organo instituzionalen izaera juridikoa eta gauza litzaketan ekintzen balio juridikoa, eta 3.2 artikulua geroago hartu beharreko Estatuarteko akordio baten menpe jartzen du Hitzarmenaren aplikazioa³².

Era berean, Hitzarmenaren testuaren Eranskinean jasotako lankidetzarako ereduak azalpen izaera besterik ez dute, eta horrenbestez, ez dute inolako kontratu baliorik, eta horrek nabarmen ahuldu du Hitzarmenaren eraginkortasuna³³.

Hitzarmen horren eraginkortasun urriaren ondorioz, ustez hitzarmen horren onuradun diren lurralde kolektibitateen esparru juridiko arau-emailea erabat bestelakoa denez, eta hitzarmen horretan ez denez adierazpen garbirik jasotzen mugaz gaindiko akordioak egiteko lurralde kolektibitateen aukera juridikoaren inguruan, Europako Tokiko eta Lurraldeko Botereen Konferentziak (ETLBK) Hitzarmen Markoa babesteko bere tresna juridikoa prestatzea erabaki zuen. Halatan, Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Marko Europarraren Protokolo Osagarria prestatzea proposatu zuen bere 230. Ebazpenaren (1992) bidez. Europako Kontseiluko Ministroen Batzarrak Protokolo hori onartu zuen 1995eko azaroaren 9an Strasburgen³⁴.

Protokolo Osagarriak zehazten du komeni dela Hitzarmen Markoa errealitate europarrera egokitzea eta hitzarmen hori osatzea Lurralde Kolektibitate edo Agintarien artean Mugaz Gaindiko Lankidetzari indartzeko, testuaren hitzaurrean jasotzen den bezala.

Protokolo Osagarri horrek bi berrikuntza nabarmen jasotzen ditu:

- Modu espresuan onartu eta errespetatzen da (2.1 art.) lurralde kolektibitateek duten eskubidea beste Estatu batzuetako lurralde agintari edo kolektibitateekin Mugaz Gaindiko Lankidetzarako akordioak sinatzeko, beren estatutuaren aurreikusitako prozesuak, legeria nazionala eta Aldeek jada hartutako nazioarteko konpromisoak errespetatuz betiere.

Esparru horren barnean hartzen diren erabakiek lurralde kolektibitateek beren orden juridikoaren barnean eginiko ekintzen balio juridiko eta ondorio berdinak izango dituzte (7. art.).

- Protokoloaren testuaren 3. artikulua Mugaz Gaindiko Lankidetzarako akordioaren bidez Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Erakunde bat sortzeko aukera aurreikusten du. Erakunde horrek nortasun juridikoa izan dezake ala ez, eta hartutako akordioek erabakiko dute zuzenbide pribatua edo publikoa izango duen.

Erakunde horrek nortasun juridikoa badu, egoitza duen Aldeko Legeak edo Zuzenbide Nazionalak zehaztuko du nortasun hori, eta gerta litezkeen kontentziosoak eskuduntza duten jurisdikzioek erabakiko dituzte aplikatu beharreko Zuzenbide Nazionalaren arabera (7. art.). Horrenbestez, Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Erakundea eta bere ekintzak erakunde horrek egoitza duen Estatuko Zuzenbidean eta bere estatutuaren jasoko dira. Era berean, Urteko Aurrekontua izango du eta Urteko Kontabilitatea eramango du, eta parte hartzen duten lurralde kolektibitateen ekarpenen bidez finantzatuko da. Protokoloaren Testuak muga batzuk zehazten ditu erakunde horri begira, hau da, ezin izango ditu pertsonen eskubideak eta askatasunak ukitzen dituzten edo eragin orokorra duten erabakiak hartu, eta era berean, ezin izango ditu neurri fiskalak hartu (4. art.).

Protokoloak 14 artikulua ditu guztira, eta hitzarmena berresteko, salatzeko eta hitzarmenari atxikitzeko prozeduraren arauak jasotzen ditu halaber. Era berean, Europako Kontseiluko

31. Carlos FERNADEZ DE CASADEVANTE. *Op Cit.*; 90. or.

32. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 70. or.

33. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 159. or.

34. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 112. or.

Idazkaritza Nagusiaren eta hitzarmena berresten duten Estatuen artean informazioa emateko beharra jasotzen du³⁵.

Paperean, Protokoloa aurrerapauso handia da Hitzarmen Markoari dagokionez, mugaz gaindiko harremanak zehaztu eta mugatzen baititu eta Hitzarmen Markoan³⁶ batere aipatzen ez zen izaera, edukia eta segurtasun juridikoa ematen baitie harreman horiei, eta bereziki, hainbat Estatutako lurralde kolektibitateen artean Mugaz Gaindiko Lankidetzarako akordioak sinatzeko eta Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Erakundeak sortzeko aukerak espresuki onartzen dituenez, lankidetzak horri indar handia ematen diolako.

Geroago, 1998ko maiatzaren 5ean, Europako Kontseiluak Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Markoaren 2. Protokoloa onartu zuen Strasburgen. Protokolo horretan Europako Lurralde Kolektibitateen arteko Lurraldearteko Lankidetzak jasotzen da soilik, eta Mugaz Gaindiko Hitzarmen Markoan eta ondoko Lehen Protokoloan Mugaz Gaindiko Lankidetzari ezagutzen zaizkion ondorio berdinak ezagutzen zaizkio Lurraldearteko Lankidetzari, baina protokolo horren edukia ez dugu lan honetan aztertuko, mugaz gaindiko edukirik ez duelako³⁷.

4.2. Baionako Ituna

Baionako Itunaz ezagutzen dena Espainiako Erreinuaren eta Frantziako Errepublikaren artean lurralde erakundearen arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzari buruz sinaturiko Ituna da, eta Baionan egin zen 1995eko martxoaren 10ean.

Espainiako Erreina eta Frantziako Errepublika lurralde erakundearen arteko Lankidetzaren dinamismoaz jabeturik, bi aldeko harremanak aberastu eta Europaren eraikuntza indartzeko lankidetzak hori mantendu eta garatu nahian, eta lurralde kolektibitate edo agintarien arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzarako 1980ko martxoaren 21eko Hitzarmen Marko Europarraren aplikazioa errazteko asmoz³⁸, bi Estatuak lurralde erakundearen arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Baionako Ituna sinatzea erabaki zuten 1995eko martxoaren 10ean Baionan. Hitzarmen Markoa aplikatzeko³⁹, eta horrenbestez, Mugaz Gaindiko Lankidetzak aurrera



Baiona-Donostia Eurohiriaren Liburu Zuriaren azala.

eramateko, lurralde erakundeei esparru juridiko egokia ematea du xede Itun horrek.

Baionako Itunaren helburu zehatza bere 1. artikuluan jasotzen da, eta hau da: "lurralde erakunde frantsesen eta espainiarren artean mugaz gaindiko lankidetzak erraztu eta sustatzea, alde kontratugile bakoitzaren Barne Zuzenbidea eta nazioarteko konpromisoak errespetatuz, eta bereziki, Barne Zuzenbidean lurralde erakundeei ematen zaizkien eskuduntzak errespetatuz".

Itun horrek 14 artikulua ditu guztira, eta 1994ko urriaren 21ean Foixen eginiko karta trukearen bidez zehaztutako lurralde erakundearen arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Batzorde Franko Espainiarrak bere jarraipena egiten du (Baionako Itunaren 11. artikulua), itun horren aplikazioari eta aplikazio horretatik etor litezkeen arazoei dagokienez.

Baionako Itunak bere 2. artikuluan zehazten du itun hori aplikatu beharreko lurralde erakundeak zeintzuk diren: Estatu espainiarraren aldetik, Euskadi, Nafarroa, Aragoi eta Kataluniako Autonomia Erkidegoak eta Autonomia Erkidego horietako Lurralde Historikoak, Herrialdeak eta Udalerriak; Frantziako Estatuaren aldetik, Akitania, Midi Pyrénées, Languedoc-Roussillon Lurraldeak eta lurralde horien barnean dauden Departamentuak, Udalerriak eta Elkarteak.

35. EUROPAKO KONTSEILUA. Lurralde Kolektibitate edo Agintarien Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Markoaren Protokolo Osagarriaren Testua. Strasburg, 1995/11/9.

36. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 160. or.

37. EUROPAKO KONTSEILUA. Lurralde Kolektibitate edo Agintarien Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Markoaren 2. Protokoloaren Testua. Strasburg, 1998/5/5.

38. EHA 1997/3/10. Baionako Itunaren Hitzazua.

39. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 114. or.

3. artikulua eskuduntza-muga bat zehazten du, lurralde erakundeek mugaz gaindiko lankidetzarako ekintzak hasi ahal izango dituztela zehaztean, alderi kontratugileen barne zuzenbidearen arabera, jarduera erakunde baten eta bestearen eskuduntza esparruari dagokionean eta interes komuna dagoenean arauak eman eta kontrolerako ahalmenak, eta lurralde erakundeek erabiltzen dituzten eskuduntzak, espresuki kanpo geratzen dira Estatuko agenteak (kasu frantsesean) edo Estatuak emaniko eskuduntza baten arabera (Espainiaren kasuan) diren aldetik.

Mugaz gaindiko lankidetzarako bide gisa, bere esparruaren barnean mugaz gaindiko lankidetzarako Hitzarmenak sinatzea zehazten du Itunak, ekipamendu edo zerbitzu publikoak sortu eta kudeatu ahal izateko eta lurralde erakundeen interes komunek esparruetan erabakiak koordinatu ahal izateko (3. art.). Hitzarmen horiek zehaztuko dute beraitan jasotako betebeharreri aplikatuko zaien zuzenbidea zein den. Dena dela, zuzenbide hori Ituna sinatzen duten Estatu edo alde kontratugileetako batekoa izango da, eta obligazioak bete behar direla-eta auzia baldin badago, aukeratutako zuzenbideari dagokion Estatu izango da jurisdikzio eskuduna (4. art.).

Lurralde erakundeak lehendik dauden beste erakunde batzuetan sartu ahal izango dira beren helburuak betetzeko (5.1. art.), edo mugaz gaindiko lankidetzarako erakundeak sortu ahal izango dituzte ekipamendu eta zerbitzu publikoak kudeatzeko⁴⁰. Horretarako, estatutu bat beharko dute, eta estatutu horrek Baionako Itunaren 6. artikulua zehaztuz jaso beharko ditu gutxienez.

Baionako Itunak 10 urteko muga aurreikusten du sina litezkeen hitzarmenei begira (9. art.), eta hitzarmen horiek berritu ahal izango dira, sinatzen dituzten erakundeek espresuki erabakitzen badute. Ituna 1997ko otsailaren 24an hasi zen indarrean⁴¹, Itunaren 13. artikuluan zehaztu bezala, aldeek itun hori indarrean hasteko tramiteak bete zirela jakinarazi ondoren.

Baionako Ituna indarrean hasi ondoren, legeria espainiarrak zehazten zuen "Nazioko Gobernuak adostasun espresua emateko" beharrak ezin zion hitzarmenen eraginkortasunari eutsi, lurralde erakundeek sina ditzaketen lankidetzarako hitzarmenei begira esparru juridiko zehatza eta xehea zehazten baitzuen itunak. Nolanahi ere, Kanpo Arazo eta Administrazio Publikoetarako ministroak proposatuta, eta Estatuko Kontseiluarekin bat, Ministroen

Kontseiluak 1317/97 Errege Dekretua onartu zuen 1997ko abuztuaren 1ean eginiko bileran. Errege Dekretu horren arabera, autonomia erkidegoek eta lurralde erakundeek atzerriko lurralde erakundeekin sinatzen dituzten mugaz gaindiko lankidetzarako hitzarmenen berri alde aurretik eman behar diote Estatuko Administrazio Nagusiari, eta aldizkari ofizialean argitaratu behar dira. Horrenbestez, dekretu horrek funtsezko bi elementu arautzen ditu, eta prozedura berria zehazten du mugaz gaindiko lankidetzarako hitzarmenek Espainian eragina izan dezaten hitzarmen horiek sinatzen dituzten lurralde erakundeen artean:

a) Autonomia erkidegoek eta Tokiko Erakundeek, sinatu nahi dituzten mugaz gaindiko lankidetzarako hitzarmenen proiektuen berri emango diote alde aurretik Estatuko Administrazio Nagusiari. Zehatz adierazteko, proiektu hori Administrazio Publikoen Ministerioko Lurralde Administrazioetarako Estatu Idazkaritzara bidaliko dute proiektua.

b) Sinaturiko hitzarmenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, beste aldizkari ofizial batzuetan argitaratzeko aukera kontuan hartu gabe⁴².

Baionako Ituna sinatu zenetik, itun horren emaitza bakarra "Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa" eratzea izan da. 1998ko abenduaren 23an Irun, Hondarribia eta Hendaia udalerriek sinatu zuten mugaz gaindiko lankidetzarako Hitzarmenaren arabera sortu zen Partzuergo hori, tokiko erakundeen arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzari buruz Baionan 1995eko martxoaren 10ean⁴³ Espainiako Erreinuaren eta Frantziako Errepublikaren artean sinaturiko Itunaren barnean.

4.3. Lankidetzarako protokoloa Akitania, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean

1989ko urriaren 3an, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Lurraldeak lankidetzarako protokolo bat sinatu zuten eta, horri esker, instituzio-harreman iraunkorrak izaten hasi ziren Mugaldeko bi Lurralde horien artean, bakoitzaren eskuduntzen esparruan. Protokolo horrek, esparru ekonomiko eta sozialetan lurralde bakoitzak bideratzen dituen politikei buruzko informazio baliagarri guztia trukatzeko xede, prestakuntzaren eta

40. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 115. or.

41. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 114. or.

42. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 116. or. eta hurrengoak.

43. BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA. Partzuergoaren Estatutuak, 1. artikulua.

ikerketaren garapena sustatzeko eta kultur ondareari balio handiagoa emateko.

Aurreikusitako helburu horiek bideratzeko, Batzorde instituzional iraunkor bat sortu zuten. Batzorde hori honako kide hauek osatzen dute: bi Lurraldeetako gobernuetako lehendakariak, Lurralde bakoitzeko lau ordezkariak eta mugaldeko azpilurralde kolektibitateen ordezkari batek (Gipuzkoako Lurralde Historikoa eta Pirinio Atlantiarrek Departamentua)⁴⁴.

1990eko irailaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitania Lurraldearen artean sinaturiko Lankidetzarako Protokoloaren Protokolo Eranskina sinatu zen Irunen. Protokolo horrek "Euskadi-Akitania Lankidetzarako Fondo" izeneko jarduerarako fondo komuna sortzea zehazten du. Fondo hori 300.000 ECUkoa izango da lehen denboraldirako eta Lurralde bakoitzak kopuru horren %50 finantzatuko du⁴⁵.

Bi Protokolo horiek indarrrik gabe geratu ziren 1992ko otsailaren 13an, Iruñean, Akitania Lurraldearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean Lankidetzarako Protokoloa sinatu zenean, Protokoloaren Azken Xedapenaren arabera. Politika aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoak interes handia zuen alde aurretik Akitaniarekin sinaturiko Hitzarmen horretan Nafarroa sartzeko; halaxe adierazten du behintzat Protokoloaren Kontuan hartzekoetan hiru alde partaideek kultura eta hizkuntza komunak dituztela adierazten duten beste bi puntu sartu izanak⁴⁶.

Protokoloaren Hitzaurreak hainbat Kontuan hartzeko jasotzen ditu hitzarmen sinatzeko oinarri gisa. Lurralde Kolektibitate edo Agintarien Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Hitzarmen Europarraren (Europako Kontseilua, Madril 1980/05/21) oinarria jasotzen du, eta Europako Batasunean erregionalizazioa garapena eta ekonomia-kohesioa bideratzea dela dio, komunitatearen integrazioa demokratizatze faktorea, berezitasun kulturalak baloratzeko faktorea, eta horrenbestez, prozesu hori ezinbestekoa eta atzeraezina da, baina batik bat zehazten da hiru Lurraldeek kultur eta hizkuntza ondare komuna dutela, eta hiru Lurraldeek Europako Kontseiluaren Hizkuntza Gutxitu edo Lurraldeen Karta bultzatu eta sustatu nahi dutela, euskarari eta euskal kulturari zuzenean lotuta baitago⁴⁷.

Protokoloak helburu batzuk ditu, eta helburu horiek 1. artikuluan jasotzen dira. Hona

hemen laburbilduta: Lurralde bakoitzean jardunean ari diren instantzia publiko, profesional eta pribatuaren artean sortzen diren lankidetzak harremanak sustatzeko beharra ekonomia eta gizarte esparruan, komunikaziorako azpiegiturak garatzeko, prestakuntza eta ikerketa garatzeko, eta bakoitzaren kultur eta hizkuntza ondareari balio handiagoa emateko. Helburu horiek lortzeko, Lankidetzarako Fondo batzuk sortu dira, horretarako osatu den Batzorde Instituzional Iraunkorrak koordinatuta (2. art.), eta lankidetzapolitika batzuk bultzatzeko konpromisoa hartu dute aldeek. Hori guztia aurrera eramateko, Akitania, Nafarroa eta Euskal Herriko Unibertsitatea lotzeko batzorde bat sortu da unibertsitatearen artean lankidetzak aurrera eraman ahal izateko, "Atlantica" Aldizkaria argitaratu da, eta Lurralde Koadroen prestakuntza komuna garatu da hiru Administrazio Publikoetako langileen arteko harremana errazteko eta proiektu batzuk elkarrekin kudeatzeko (3. art.).

Europako Batasuneko beste Lurralde batzuekin harremanak izateaz, eta mugak desagertu ondoren ekonomia eta gizarte mailan desorekak izateko arriskuan dauden "mugaldeko" eremuei laguntza eskaintzeaz gainera (4. eta 5. art.), Batzorde Instituzional Iraunkor bat sortzeko erabakia hartu zuten hiru Lurraldeek, sinaturiko Protokoloa aplikatuta bideratu beharreko jarduerak sustatu eta jarraitzeko. Batzorde hori hiru Lurraldeetako Gobernuetako lehendakariak eta lurralde bakoitzeko lau ordezkariak osatzen dute, eta mugaldeko azpilurralde kolektibitateen ordezkari bat ere barnean dago. Bulego Iraunkor bat izango da Batzordearen Idazkaritzarako (6. art.) eta Bitariko Batzorde Tekniko batzuk sortu dira Lankidetzak Fondoaren hiru eremuei dagozkienak. Batzorde horiek, aurkeztutako lankidetzak proiektuak aztertuko dituzte eta laguntzen banaketa proposamena aurkeztuko diote Batzorde iraunkorrari.

Fondoaren horniduraren eta mugaz gaindiko proiektuen kalitatea eta kopurua handitu egin dira; izan ere, 1990ean Fondo hori 40 milioi pezetakoa zen, 1991n 120 milioikoa, 1992an 200 milioikoa, 1993an 250 milioikoa eta 1994an 270 milioikoa⁴⁸.

Azken datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitateak bere lehendakariaren bidez protokolo hori etetea erabaki ondoren, eta horrenbestez, hasierako Akitania eta EAERen arteko bi aldeko harreman egoerara itzulirik, Fondo hori 110.000.000 pezetakoa da EAERen⁴⁹

44. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 82. or.

45. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 128. or.

46. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 83. or.

47. Akitania Lurraldearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Protokoloa. Hitzaurrea.

48. Gurutz JAUREGUI, José Manuel CASTELLS, Xabier IRIONDO. *Op Cit.*; 129. or.

49. 102. EHAA. 2000ko martxoaren 31.

kargura, eta beste hainbeste Akitania Lurraldeko aurrekontuen kargura.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa sortu arte, Lankidetzarako Protokolo hori izan da Euskadi-Akitaniaren arteko mugaz gaindiko lankidetzak izan duen modu bukatu eta bereziena, eta lurraldearteko lankidetzaren nukleo biltzaile eta dinamizatzailea izan da Ardatz Atlantiarrean zehar⁵⁰. Nolanahi ere, hiru aldeko Protokolo hori bertan behera gelditu da politikoak baino ez diren arrazoiengatik Nafarroako Gobernuko lehendakariak hala erabaki ondoren. Hala ere, sinatu zuten bi lehenengoek Akordioari eusten diote, eta beste akordio posible bat planteatzen da Akitania Lurraldearen eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean, bi aldekoak biak ere.

5. Irudi juridikoak

5.1. Mugaz Gaindiko Partzuergoa

Mugaz Gaindiko Partzuergoa ez da berez irudi juridiko bat, ordenamendu juridiko-administratibo espainiarrak jasotzen duen Partzuergoaren irudi juridikoaren aplikazioa baizik, haren arautzea mugaz gaindiko errealitatez eramanen eta irudi beretik etorritako ordenamendu guztia aplikaturik.

Administrazio Publikoen eta Guztientzako Administrazio Prozeduraren Erregimen Juridikoaren 30/1992 Legearen (APL) aurreikuspen generikoaz gainera bere 7. artikuluan, oso laburra da arautze hori. Estatuaren legeriari dagokionez, honako hauek baino ez dute ukitzen: Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen (TEOAL) 57. eta 87. artikuluek, TRRL 781/86 Errege Dekretu Legegilearen 110. artikulua, eta Toki Erakundeetako Zerbitzuen Araudiaren 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 37-40 artikuluek.

Partzuergoa tokiko erakundeak beste Administrazio publiko edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu batzuekin bildu edo elkartzea da, nortasun juridikoa izango duen antolamendu komun baten bidez guztien intereseko gai bat kudeatzeko. Partzuergoaren eta Mankomunitatearen arteko aldea zera da, Mankomunitatean tokikoak ez diren beste erakunde batzuk biltzen direla⁵¹.

Honako ezaugarri hauen arabera definituko dugu Partzuergoaren Izaera Juridikoa:

- Erakunde Publikoa da.
- Elkartze Erakundea da.
- Hasieran hainbat moldeko Lurralde erakundeek osatzen dute eta historian zehar horrela izan da, baina Bidasoa-Txingudi Partzuergoa bezalako irudiek argi uzten dute ez duela derrigorrez horrela izan behar.
- Irabazi-asmorik gabeko Erakunde Pribatuekiko zabalik dago.
- Administrazio Instrumentala da, helburu zehatz batzuk betetzeko sortua, ez da Lurralde Administrazio bat⁵².

Elkarturiko erakundeak ordezkatzan dituen erakundea da, eta hasiera batean hainbat moldeko erakunde publikoak badira ere, hala behar badu, irabazi-asmorik gabeko eta erakunde publiko horien interes berdinak dituen erakunde pribaturen bat tartean, Udal Mankomunitatearekin batera, administrazioarteko erakundearen prototipo bihurtzen da⁵³. Zalantzan geratzen da partzuergoan bildutako erakunde publikoak hainbat moldekoak izateko beharra, hori kolokan jartzen baitu Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa eratu izanak, molde bereko toki erakunde publikoen artean osatu baita.

Partzuergoaren irudiaren araudiak oinarritzat edo erreferentzia gisa Mankomunitateen araudia hartzen badu ere, bereizketa batzuk egin behar dira bi elkarte molde horien artean:

- Tradizioz osaeran oinarritu da bien arteko aldea: izaera homogeeneko tokiko erakundeak Mankomunitateetan eta izaera heterogeeneko erakundeak Partzuergoetan.
- Prototipo funtzionaltasun desberdina dago:
 - Mankomunitatea helburu anitzak betetzeko osatzen da, eta ezin ditu bere gain hartu dagokien udalerriei emaniko eskuduntza guztiak.
 - Partzuergoa hainbat Administrazio Publiko interesaturik dauden lan edo zerbitzu zehatz bat gauzatzeko osatzen da, ez Toki Erakunde batzuk zerbitzuak emateko finantza eta teknika mailan dituzten eskasi iraunkorrek sortutako egoerei irtenbidea aurkitzeko⁵⁴.

50. Francisco LETAMENDIA, José Luis DE CASTRO, Anton BORJA. *Op Cit.*; 83. or.

51. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoari buruzko Azterketa Juridikoa; 51. or.

52. Juan Goñi jaun irakaslea. Eusko Ikaskuntza antolatutako jardunaldia, *Mugaz gaindiko lankidetzak bideratzeko aukerak eta muga Juridikoak*, Angelu, 2000ko urtarrilaren 30ean.

53. Eva NIETO. *El Consorcio Administrativo*, Bartzelona, 1997; 71. or.

54. Eva NIETO. *El Consorcio Administrativo*, Op Cit.; 73. or.

Partzuergoaren izaera juridikoari begira, funtsezko eta oinarriko baldintza Toki Erakundea izatea da. Historian zehar Toki Erakundetzat hartu bada ere⁵⁵, Toki Erregimenaren Oinarrien Legea onartzeak hautsi egiten du Toki erakunde gisa Partzuergoaren izaera juridikoaren inguruan lortutako doktrina-batasuna honako era honetan:

- Toki Erregimenaren Oinarrien Legeak bere 3. artikuluan tokiko lurralde erakundeek zerrenda bat jasotzen du eta zerrenda horretan ez ditu Partzuergoak aipatzen.
- Partzuergoak 87. artikuluan arautzen ditu VI. Tituluaren II. Kapituluaren barnean, *Jarduerak eta Zerbitzuak* izeneko kapituluaren hain zuzen ere, eta zerbitzuak kudeatzeko modalitate soil gisa azaltzen ditu.
- Hitzarmenarekin batera Partzuergoa 57. artikuluan borondatezko harremanerako formula gisa aipatu izanak, badirudi aurreko legeriari dagokionez beste kontsiderazio bat ematen diola irudiari.
- Gainera, ez da aurreikusten Partzuergoa otsailaren 10eko 382/1986 Errege Dekretuaren bidez sortu eta 1986ko ekainaren 3ko Aginduaren bidez garatu zen Tokiko Erakundearen Erregistroan inskribatzea⁵⁶.

Aipaturiko iritzi horiekin kontrajartzen da, ordea, Jurisprudentzia berriena, zehatz adierazteko Auzitegi Goreneko Kontentzioso-administratiborako Salaren 7. Sekzioaren 1999ko apirilaren 30eko 1999/4692 Epaia, epai horrek Toki Erakundetzat hartzen baititu Partzuergoak.

Epai horren Hirugarren Zuzenbide Oinarriak zera dio: "Toki Erregimenaren 7/1985 Legearen 3. artikulua Partzuergoak toki erakunde gisa jaso ez izanak ez du esan nahi Partzuergoa ezin denik toki erakundetzat hartu (...)". Egia da urriaren 6ko 3046/1977 Errege Dekretuak onarturiko Toki Erregimenaren Estatutu Oinarrien 41/1975 Legearen Testu Artikulatu Partzialaren 107.2 artikulua Partzuergoei toki erakundearen izaera ematen ziela, eta arau hori ez dela errepikatzen Toki Erregimenaren Alorrean indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Bateratuaren 110.2 artikuluan (apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea), baina horren arrazoia zera da, Partzuergoek beren gain helburu ugari har ditzaketenez, eta kontuan harturik Partzuergoak osa daitezkeela irabazi-asmorik gabeko Erakunde pribatuekin –aukera hori ez zuen jasotzen 3046/1977 Dekretuaren

107. artikulua–, 1986ko Testu Bateratuak ez ditu toki erakunde gisa bereizi nahi izan bere 110. artikulua araberako osa daitezkeen Partzuergo guztiak, baina izaera hori kendu ere ez die egiten, eta hala behar badu, eta dauden zirkunstantziak kontuan harturik, aukera ematen du osatutako Partzuergo toki erakundea den ala ez zehazteko; 7/1985 Legean jasotako Toki Erakundearen eskuduntzako zerbitzuak eskaintzen dituzten Partzuergoak horren adierazgarri.

Benetan interesgarriak dira Partzuergo Toki Erakundetzat hartzeko epai horretan azaltzen diren iritziak, bereziki Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoari dagokionez; izan ere, soilik toki erakundeek osatua dago, soilik toki erakundeek dagozkien jarduerak bideratzen ditu eta izaera horretatik datozen ondorio eta etekin guztiak kontuan harturik bete egiten ditu toki erregimenaren araudia errespetatu eta aplikatzeko betebeharrak.

Zuzenbide publikoaren mugaz gaindiko esparruaren barnean, Partzuergoaren irudi juridikoa irudi laxoa denez eta bere gainean arau murrizak egoteagatik jarduera esparru handia eskaintzen duenez, oso aukera egokia da era honetako mugaz gaindiko harremanak bideratzeko, gaitasun handia eskaintzen baitu mugaz gaindikoak bezalako errealitate desberdinetara egokitzeke. Hori garbi erakusten du Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergo, Hondarribia, Hendaia eta Irun, Txingudi Badiako hiru hiriak elkartzen dituen Toki Erakundearen Elkarteak, sortu izanak.

5.2. Interes Ekonomikoko Talde Europarra

5.2.1 Bost arrazoi on IETEA lehenesteko:

a) Nazioz gaineko izaera: bokazio komunitarioa

Abantailak ditu IETEAk nazio mailako zuzenbideetan oinarrituriko lankidetzak-molde ezagun guztien aldean: abantaila handia da, oroz lehenik, taldearen nazioz gaineko izaera, Europako Batasuneko nazio-sistema juridikoen aurrean arras autonomoa den esparru juridiko guztiz uniformearen eratzeko baita haren arabera.

IETEAren neutraltasun juridikoari esker, berdintasunean jokatzeko dute kide guztiak. Oso oinarri garrantzitsua da hau kideek euren arteko

55. Horrela adierazten dute azaroaren 12ko Dekretu-Legeak, Toki Erregimenaren Estatutu Oinarriek (azaroaren 19ko 41/1975 Legea, 19. oinarria) eta garapen arauak: urriaren 6ko 3046/1977 Errege Dekretuak onarturiko Testu Artikulatu Partzialak (107. art.) eta abenduaren 30eko 3250/1976 Dekretuak (129. art.).

56. Eva NIETO. *El Consorcio Administrativo*, Op Cit.; 102. or. eta hurrengoak.



inor, esparru juridiko ezagunagoan ari delakoan, egoera hobean egon ote litekeen susmoa gainditzeko.

Osaketak berak xedatzen du IETEaren nazioz gairikoa izatera; izan ere, gutxienez bi kidek osatu behar dute ezinbestez IETEa, eta kide horiek Europako Ekonomia Gunearen Estatu partaidea bana izango dute jatorri.

b) Egiatzko sinergia-tresna

IETE baten partaidea izan daitezke, lehenik: elkartek, zein ere den haien tamaina, enpresa txiki-ertaina (ETE) nahiz multinazionala; ondoren, zuzenbide publiko eta pribatuko erakunde juridikoak: udal erakundeak, merkataritza ganberak, ikerketa-guneak, unibertsitateak, eta abar..., baldin eta haien jardura bati edo batzuei nolabaiteko izatera ekonomikoa, txikia edo zeharkakoa bada ere, aitortzen bazaio edo bazaie.

Azkenik, IETEak industria, merkataritza, artisautza, nekazaritza edo lanbide liberaletako pertsona fisikoak har ditzake orobat bere baitan.

Operadore ekonomikoek oro har eskaintzen zaien sarrera zabal honek berak bermatzen du taldekide guztien teknologia, merkataritza edo finantza-gaitasunen arteko osagarritasuna. Osagarritasun-adibide bikainak eskaintzen dizkigute lurralde-erakunde publikoen eta eskualde mailako enpresa pribatuen artean eraturiko IETE batzuek lorturiko arrakastak.

c) Malgutasuna: askatasuna eta moldakortasuna

Araudiak bermatzen du taldearen moldakortasuna; hau da, taldearen baldintza ekonomiko jakin batzuetara moldatzeko gaitasuna, askatasun handia baitute taldekideek beren kontratu-harremanak zehazteko eta taldearen barne-funtzionamendua antolatzeko.

IETEaren erakuntzaren eta jardura-eparearen mailan bezala, finantza edo/eta funtzionamendu moldeetan da malgutasun hau nabari.

IETE bat eratzeko bete beharreko formalidadeak oso ximpleak dira, aski baitira horretarako kontratu bat idatziz formulatzea —ez da notarioaren eskua eskatzen— eta IETEaren egoitzari Estatuaren Erregistroan sarrera egitea. Gainera, epe mugatua edo mugarik gabeko epean era daitezke IETEa.

IETEaren partaideei finantzazio alorrean aitortzen zaien malgutasuna ere oso interesgarria da erakundeentzat. Ez zaie elkarrekin kapitalik eskatzen eratzeko unean, eta zeinaren bidez egin daitezke aportazioak: dirutan, gai edo

generotan edo, areago, industria-baliotan (ezaupide teknologikoak, patenteak, harreman komertzialak edo profesionalak, eta abar...). Horrez gainera, IETEak aldizkako kuoten ordainketaren bidez jardun dezake, edo kontu korranteetan ezarritako fondo bidez.

Taldekideen kontratu-autonomiaren berri ematen digun beste ezaugarri bat, IETEaren egoitza Estatu taldekide batetik bestera aldatzeko ahalmena dugu, erabaki horren arabera ezin ondorioztatuko baita taldea desegin denik edo inor bide horretan ari denik. Egoitza aldatzeko aukera ez da egun ezagutzen elkarrean zuzenbidea arautzen duen inongo nazio-jurisdikzioetan.

IETEaren partaideen arteko harremanen antolakuntzari dagokionez, haien borondatearen eskuetan uzten du araudiak funtsezkoa: halatan, librokiz zehaztu ahal izango dituzte taldekideek IETEaren balizko galeretan eta etekinetan izango duten parteak.

d) Egonkortasuna: gaitasun juridikoa eta fidagarritasuna

Malgutasuna IETEaren ezaugarri nagusietako bada ere, azpimarratzekoak dira, era berean, IETEaren egonkortasunaren oinarriak.

Egonkortasun hau IETEaren gaitasun juridiko oso bezain autonomoaren ondorioa da, eta hori da lankidetzarako kontratu-teknika hutsetatik bereizten duen ezaugarri guztiz garrantzitsua. Bestalde, berezko organoak ditu IETEak (taldekideen biltzarra eta kudeatzaileak).

IETEak duen egonkortasunak beste ezein kontratuk baino negoziatio ahalmen eta ordezkartza maila askoz garrantzitsuagoak eskaintzen dizkie taldekideei. Badu garrantzia ezaugarri honek, IETEak merkatu publikoetan eta diru publikoaren bidez finantzaturiko programetan edukiko duen partaidetza mailaren ikuspegitik adibidez, IETEaren partaideek fronte batu bat aurkez baitezakete kontratatzaileekiko harremanetan eta kontratazioa pertsona bakar batekin negoziatu behar denean.

Azkenik, babes gorena eta eraginkorra ziurtatzen zaie taldearekin negoziatio-harremanetan jartzen diren hirugarrengoei: araudiak IETEaren erantzukizun solidario mugagabearen printzipioa xedatzen du taldearen zorroren begira.

Izan ere, IETEak bere izenean hartzen ahal ditu finantza-inplikazioak dituzten konpromisoak. Bidezkoa denez, bere ondarearen kontura hartuko du karga hori. Hala eta guztiz ere, taldeak ez badu ordainketa beharreko epean egiten, taldekideek mugarik gabe eta solidarioki erantzun dute taldearen edozein zorraren aurrean.

e) Izaera laguntzailea: taldekideen autonomia

Helburuak bereizten du nagusiki taldea elkarte batetik. Taldearen helburua da partaideen jarduera ekonomikoa erraztea edo garatzea, haien emaitzak gero eta hobekiago izan daitezen. Elkartearen kasuan, aldiz, etekina da helburua.

Izaera laguntzaile hori dela medio, taldekideen jarduera ekonomikoarekin lotuko da taldearen jarduera, ez da haren ordeztariko. Halatan, nolabaiteko autonomia maila juridiko eta ekonomikoari eusten diote taldekideek, parte hartzen ari diren lankidetzak dirauen bitartean.

5.2.2. "Neurriko" lankidetzakontratua

a) Kontratuaren erredakzioa

IETE ororen jatorrian dago erakuntza-kontratu baten erredakzioa, taldekidegaiek egingo dutena. Kontratu honen arabera, burujabetza maila handia aitortzen zaie partaideei funtsezko osagaiak definitzerakoan.

Forma

IETEaren kontratua idatziz zehaztu behar da. Ezinbestekoa da hau IETEak egoitza izango duen Estatuko Erregistroan sarrera-formalitateak bete ahal izateko. Kontratua ez da ezinbestean notarioaren aurrean aurkeztuko. Aski da horretarako eskritura pribatu bat.

Edukia

Araudiaren 5. artikulua xedatzen duen gutxieneko horretara muga daiteke kontratuaren edukia, hau da:

- taldearen izena,
- taldearen egoitzako helbide ofiziala,
- taldearen helburua,
- taldekideen nortasuna,
- taldearen jardueraren epea, epe hori mugatua denean.

Aipamen horietako bakar batek ere ez du taldekideen askatasuna kaltetuko.

Ez da kontratua xehe-xehe azaltzerik gomendatzen. Zenbat eta kontratu irekiagoa izan, hainbat eta garrantzitsuagoa izango da taldekideen engaiamendu pertsonala.

IETEen erakuntza-kontratuaren maiz ageri diren aipamen lagungarriek taldekideen autonomia berresten dute beti, eta honako erreferentziak dituzte eskuarki:

- taldearen finantzazio-moldeak: izan ere, taldekideek aukera zabala dute taldearen finantzazio-moldeei dagokienez, ez baita beharrezkoa kapital bat ezartzea;
- taldekideen partaidetza taldearen galera eta etekinetan;
- taldearen osaketa aldatzeko baldintzak (onartzea, dimisioa, erretirada, kanporatzea);
- kontsulta-bideak eta taldekideen batzarraren erabakimena;
- kudeatzaileen izendatzea, baliogabetzea eta ahalmenen jarduera;
- taldekideen arteko gatazken gaineko araudia.

Beste batzuetan, eta ez gutxitan, barne araudi xehea xedatzen dute taldekideek, "jokabide-kode" profesional gisa. Dokumentu hau erakuntza-kontratutik kanpokoa da, eta badu abantaila bat haren aldean, guztiz aldatu ahal izango baita taldekideek erabakitako gehiengoaren arabera (gehiengo ximplea edo gehiengo kualifikatua). Ordea, aho batez baizik ez dira aldatu ahal izango erakuntza-kontratuko klausula batzuk.

Taldekideei eta kudeatzaileei aplikatzen zaie barne araudia eta hartan zehaztu ahal izango da erantzukizunaren barne-banaketa, taldearen jarduerak eskatzen dituen engaiamenduen arabera.

Hizkuntza

Kontratua idazten den hizkuntza IETEaren egoitzaren erregistro-sarreran ohi duten hizkuntza –edo haietako bat– izango da. Usadioak horretarako aukera ematen badu, erregistroak onartu ahal izango du sarrera berea ez den hizkuntza batean egin ahal izatea, itzulpen baten ondoan aurkeztu bada.

Hala ere, horrek ez du esan nahi IETE baten taldekideen lan-hizkuntza kontratuaren erredakzioan erabili ez den beste bat izan ez daitekeenik.

Kontratu-ereduak

Enpresa Txiki Ertainen kudeatzaile askok azaldu dute "estatutu-ereduak" beren aurrean eduki nahia, taldearen kontratua aiseago idatzi ahal izan dezaten.

Komenigarria da jakin dadin araudiak berak adierazten dituela kontratuaren ezinbestez zehaztu behar diren puntuak, eta ordeztariko arau batzuk ere xedatzen ditu klausula batzuk betetzen ez direnerako. Bestalde, tresna berez mugatua da IETEa eta taldekideen helburuen

baitan dago funtsean kontratuaren erredakzioa. Praktika juridikoak berrogei orrialdeko kontratuak ezagutzen ditu, baina baita bizpahiru orrialdekoak ere, horretarako xehe-xehe zehaztu diren barne-araudien ondoan. Azkenik, Estatuak talde eta elkartearen erregistroari begira xedaturiko legeriaren arabera dira klausula batzuk.

b) Jakinarazpena

Hirugarrenen guztizko babesa ziurtatzen du araudiak IETEEen sorrera ezagutarazteko aurreikusitako duen sistemak. Bi formalitate-mota hartu ditu kontuan sistema hau egituratzerakoan: taldearen erregistroko izen-ematea eta sorreraren berri ematea, jakinarazpen-formalitateen arabera.

Erregistroko izen-ematea eta formalizazioa

Zehaztu eta gero, sarrera egin behar zaio kontratuari taldearen egoitza dagoen Estatuak adierazitako erregistroan. Erregistroko izen-emateak zehazten du taldearen sorrera, eta une hartatik beretik izango du taldeak jarduteko ahalmen juridiko guztia.

Erregistro horretan bertan aurkeztu eta gordailuan utzi behar dira taldearen kontratua eta hartan gerokoan egingo diren aldaketa guztiak, baita honako xehetasun hauek ere: taldekideen partizipazioen zehazpenak, partzialak badira ere, taldearen ezein establezimenduren sorrera edo kentzea, kudeatzaileen izendapena, haien ahalmenak guztion sinadurara mugatuak diren edo ez zehaztuz, eta, hala behar badu, haien egitekoen bukaera eta kitapena.

Gogoan eduki bedi, halaber, edonork duela, dagokion erregistroan, edozein talde europarren kontratua eta hari loturiko agiri guztiak ezagutzeko eskubidea, baita haien kopia osoa edo partziala eskuratzeko eskubidea ere, horretarako egin beharreko gastuak administrazio-kostuak baino goragokoak ezin izango direlarik.

Jakinarazpena

Jakinarazpena Aldizkari Ofizialean

Kontratuaren berri eman behar da, lehenik, egoitza dagoen Estatuako aldizkari ofizial "egokian". Datu jakin batzuk, hala nola izena, helburua, egoitza, taldekideen nortasuna, taldearen jardura-epea, kopurua, data eta erregistro-hiria, zehaztu behar dira jakinarazpen osoari begira; beste datu batzuk, araudiaren 8. artikuluan zehaztuak, egoitza aldatzeko proiektua adibidez, eranskin labur baten bidez eman daitezke jakitera.

Aldizkari ofizialeko jakinarazpenaren xedea: IETEEaren berri hirugarrenen ematea da haren

xedea, nazio-zuzenbide bakoitzak, elkartearen zuzenbidearen gaineko lehen direktiba aplikatuz, finkatu dituen baldintzen arabera.

Jakinarazpena Europako Erkidegoen Egunkari ofizialean

Gogoan edurik IETEEen bokazio europarra, taldearen erregistroko izen-ematea eta, hala behar badu, haren amaiera eta kitapena Europako Erkidegoen Egunkari ofizialeko C sailean jakinaraztea aurreikusitako da era berean.

Egunkari ofizialeko jakinarazpenaren xedea: neurri honek ez du inolako eragin juridikorik eta publikoari taldearen sorreraren edo amaieraren berri ematea da haren xedea. Jakinarazpen honen bidez, taldearen erregistroan utzirik dokumentazioaren xehetasunak ere ezagutu ahal izango dira, eta erregistro horretan eskatu eta jaso ahal izango da taldeari buruzko informazio osagarri oro.

Nola ekin Europako Erkidegoen Egunkari ofizialeko jakinarazpenari?

Europako Erkidegoen Egunkari ofizialean argitaratzeko prozesuan, Estatu batzuetan, Belgikan bereziki, Estatu agintariak berak arduratzen dira aldizkari nazionalen taldearen sorrerari buruz argitara emaniko estraktua Europako Erkidegoetako jakinarazpen ofizialen Bulegora helarazteaz. Beste Estatu batzuetan, Italian esate baterako, IETE sortu berriaren sortzaileei dagokie betebehar hori.

5.2.3. Taldeari aplikatu dakiokkeen legea

IETE oro dago lehen-lehenik 2137/85 araudiaren mendean. Berdintasun zabal batez hornitzen du araudi honek IETEEen esparru juridikoa. Izan ere, nazio-legearen gainetik dago araudia eta Estatu kide guztietan zuzenean aplikatzen den arau-multzo homogeneo bat zehazten du IETEEen sorrera eta jardueraren gainean.

Zeintzuk dira araudiak hartzen dituen eremuak?

Oro har, IETEEaren sorrera, jardura eta kideen eta hirugarrenen babesaren gaineko baldintzak hartzen dituzte aintzat araudiko arauak eta xedapenak.

Zeintzuk dira nazio-xedapenak hartzen dituzten eremuak?

Araudiak eta aldean borondateak ez ezik, nazio-legeria desberdinek ere arautzen dituzte IETEEak.

Araudiaren xedapenak hartuko dira betiere kontuan, beste legerien gainetik daudelako. Bestalde, ordezko legeria gisa jardungo du IETEak egoitza duen Estatuako barne-legeriak, eta taldearen kontratua arautuko du, alde batetik, eta taldearen barne-jarduera, bestetik.

Taldearen kontratuari edo barne-jarduerari aplikatuko zaien ordezko zuzenbidea desberdina da Estatu kideen arabera. Kasu batzuetan, pertsona moral orori aplikatu beharreko zuzenbidea da. Beste kasu batzuetan, IETetik hurbil dagoen entitate juridiko bati aplikatzen zaion zuzenbidea da, hala nola Frantzia, Belgika, Luxenburgo eta Espainiako interes ekonomikoko taldeei edo Portugaleko zuzenbidearen araberrako enpresa talde osagarriari aplikatzen zaiena.

Gainera, nazio-zuzenbideak taldekideen erantzukizun mugagabe solidarioaren ondorioak, taldea bertan behar uzteko arazoak eta haren kitapen-motak, IETEaren porrota, taldekideei gardentasun fiskala errespetatua izan dadin aplikatu beharreko zuzenbide fiskala eta, azkenik, kaudimen eza eta ordainketa-etendura arautzen ditu.

Bestalde, araudiak hartzen ez dituen eremuetan, arloan aplikatzen diren nazio-zuzenbidearen edo Europako zuzenbidearen xedapenen mendean jardungo du taldeak beste edozein enpresak bezala, eremu horiek taldearen jardura ekonomikoari dagozkionean bereziki; gisa horretakoak dira, adibidez, gizarte-zuzenbidea, lan-zuzenbidea, konkurrentzia arautzen duen zuzenbidea eta jabego intelektuala arautzen duen zuzenbidea.

Frantzian, IETEen jarduna arautzen duen 1989ko ekainaren 13ko 89-377 Legeak eta IETEen erregistroko izen-ematea arautzen duen 1989ko ekainaren 20ko Dekretuak xedatzen dute aplikatu beharreko lege-erregimena.

Espanian, IETEen erregistroko izen-ematea arautzen duen 1989ko abenduaren 29ko 1597/1989 Errege Dekretuak eta 1991ko apirilaren 29ko 12/1991 Legeak xedatzen dute aplikatu beharreko lege-erregimena.

5.2.4 Partaidetza merkatu publikoetan

IETEa bitarteko bikaina izan daiteke enpresa europarrantzat lehiaketa publiko bati erantzuterakoan, hala lehiaketa hori nazio barruko merkatu publikoetakoa bada nola Europako Komunitatearen finantza-sostengua duten programen esparrukoa bada.

Nazioartean gero eta muga gutxiago ezagutzen duen egungo merkatuan –baita merkatu publikoen kasuan ere–, beste herrietako

enprekin lankidetzakontratuak gauzatzeko aukera eskaintzen duten tresna juridikoen premia bizia dute enpresek, enpresa txiki-ertainek (ETEEK) batez ere.

Areago, Batzordeak proiektuetara Europako Estatu bat baino gehiagoko enpresak bil ditzaten eskatzen du maiz Europako Batzordeak programetan parte hartzeko baldintza gisa, ikerketa eta garapenerako programetan bereziki.

Proiektu horietan esku hartzearen, enpresek gero eta maizago bilatu behar izaten dituzte proiektukideak, beren gaitasun tekniko-operazionalak sendotzeko aukera honela jokatuta.

Beraz, lankidetzak europarra ganoraz garatzeko esparru juridiko guztiz interesgarritzat har daiteke IETEa eta, horrenbestez, guztiz egokitzen da Europa mailako proiektuetan esku hartu nahi duten enpresen beharretara.

a) IETEaren papera merkatu publikoen esparruan

Merkatu publikoetan parte hartuz gero, hainbat egiteko izan ditzake IETEak: taldekideen koordinazio eta jardura-antolakuntzarako bitartekotzat har daiteke soil-soilik, baina, era berean, haren izenean itxi daitezke proiektu horien arabera aurreikusiriko kontratuak eta ondoren haiei ekin: izan ere, merkatu horiek eskaturiko lanak, zerbitzuak eta hornidurak bete eta bideratzeko behar diren ezaugarri juridikoen jabe da berez IETEa. Inongo jardura-sektoretatik kanpo ez dagoenez, edozein lizitazio gile edo lehiaketa-partaideri eska dakizkiokeen egitekoak bete ditzake IETEak.

b) IETEaren finantza, ekonomia eta teknologia gaitasunari buruzko xedapen bereziak

Europako Komunitatearen merkatu publikoei buruz luzaturiko direktibek berdin-berdin aplikatzen diren Komunitatearen fondoez finantzaturiko proiektu eta programen esparruan itxitako kontratu batzuetan eta “taldeen” partaidetza aurreikusten dute. Talde horien artean daude, jakina, IETEak.

Lehiaketa publikorako deia egin ondoan, botere esleitzailleek hautagaien finantza eta teknologia gaitasuna ebaluatzen dute, aukera hoberena egiteko xedean. Halatan, IETE baten gaitasunaren ebaluazioak –hau da, haren kapital edo negozio-kopuruaren gaineko ikerketak eta esperientzia profesional eta gaitasunaren teknologikoaren azterketak– maila sendoa topatu behar du IETEan eta beronen taldekideen artean, IETEaren baitan egiazko gaitasuna atzemango badu.

Irizpide bera bideratzen da, analogiaz, IETE baten gaitasunen ebaluazioa eskatzen denean laguntzarako programetan parte hartzeko.

5.2.5. Europako edo Estatu barruko programa batzuetan esku hartzeko eskatzen diren ezaugarri bereziak

Berezko ezaugarri batzuei esker, berez betetzen ditu IETEak laguntzarako programa batzuetan galde egiten diren betekizunak: nazioz gaindiko izaera, subjektu autonomoen partaidetza eta sinergia baten sorrera, taldeak berak eskaintzen duena.

a) Nazioz gaindiko izaera

Programa batzuek hainbat Estatu kidetako partaideak eskatzen dituzte ezinbestez beren proiektuetan. IETEa gutxienez bi kidek osatu behar dute eta kide horiek Europako Estatu kide bana izango dute jatorri ezinbestez; halatan, nazioz gaindiko izaera IETEaren berezko sorrera-elementuetako bat da eta, horrenbestez, *consortium* edo partzuergotzat har daiteke sortze IETEa. Arrazoi horrexegatik dute IETEek kasu guztietan programa komunitarioetan kandidatura bakarrik aurkeztu eta esku hartzeko eskubidea, baita programa horien arabera Estatu kide batzuetako entitate juridikoen partaidetza ezinbestekoa denean ere.

b) Subjektu autonomoen partaidetza

IETE bateko partaideek beren autonomiari eusten diote eta datu hau ez da maiz gogoan hartzen. Horrexegatik dirau IETEak gutxienez bi entitate juridiko autonomok proiektua bat eginik aurkez dezaten eskatzen duten programetarik kanpo uzteko arriskuak.

IETE bat gutxienez bi partaidek osatzen dute eta lankidetzan ari diren bitartean beren autonomia ekonomikoari eta juridikoari eusten diote bi taldekideek. Lankidetzarako tresna honen berezko izaeraren ondorioa da hau guztia, IETEa ezin baita fusio-tresna gisa erabili. Horrenbestez, IETE batek eskubidea du programetan berez eta bakarrik parte hartzeko, baita partaide autonomoak ezinbestez eskatzen diren programetan ere. Kasu hauetan, IETE bateko partaideei ez zaie taldearen kandidaturaren paraleloan, taldekideen banako kandidaturak aurkez ditzaten eskatu behar.

c) Sinergia baten sorrera

Kasu batzuetan, programa batzuei zuzenduriko proposamenak aztertzerakoan, ongi kontuan hartzen da eginiko proposamenak partaideen maila desberdinen artean halako sinergia sortzeko duen gaitasun erreala. Halatan, lankidetzarako egitura sortu berrien partaidetza

galde egin ahal izango dute programa horiek: inguru bikaina eskaini ahal izango du IETEak lankidetzara hori zehazterakoan.

d) IETEak eta lurraldeen arteko lankidetzara

Lurraldeen arteko lankidetzara-proiektuen muntaketan eta Europako Komunitatearen lurralde-politikarako ekinbideetan egokiro moldatzen den esparru juridikoa da IETEa. Beste lankidetzara-moldeen aldean, IETEak badu abantaila argi bat, lankidetzara publiko/pribatua bidera baitezake, hau da, lurralde-garapenaren eragile politiko, ekonomiko eta sozial guztiak bil ditzake bere baitara, eta haien artean toki-instituzioak (lurraldeak, udalak,...), merkataritza-ganberak eta garapenerako agentziak. Denboran muga jakin bat duten proiektu pilotuak bideratzeko erabil daitezke IETEak, baina aukera ematen dute, era berean, lankidetzara denboran luzatzeko, haren antolamendu egonkorra eta malgutasun operazionala bermatuz. Ongi argitzen digute adibide batzuek IETEak lurralde-lankidetzaren esparruan eduki dezakeen garrantzia.

e) GEIE Eurorégion

Bost lurralde-erakundek, Bruselako hirialdeak, Kent lurraldeak, Nord-Pas de Calais departamentuak, Flandriak eta Waloniak, IETE bat eratu dute Bruselan *GEIE Eurorégion* izenez, garapen ekonomiko, ikerketa, teknologien aurreremendu, ingurune eta turismoaren alorretan lankidetzara hobetzeraren.

Bost lan-taldek osatzen dute IETEa, eta lurralde bakoitzak du berearen ardura. Honako alor hauetan espezializatu dira taldeak: garapen ekonomikorako estrategia, hirigintza eta lurralde antolakuntza, ingurunea, langileen trukea eta komunikazioa

GEIE Eurorégion delakoak emaitza garrantzitsuak lortu ditu, hala nola ingurunearen aldeko karta bat, lurraldeetako arduradun politikoei sinatua, datu-banku informatizatu bat egin dute material berrien eta haien aplikazioen arloan, erakusketa ibiltari bat muntatu dute inguruneko gaien gainean, eta abar.

f) GEIE Sud-Mont Blanc

Igogailu mekanikoen elkarte italiar batek eta udal frantses batek osatu dute Alpeetan diharduen IETE bat, mugaz gaindiko eski-eremu baten kudeaketa komunari begira. IETEaren jarduerak bere gain hartzen ditu zerbitzu komunak (hala nola bi aldeetan balio duen igogailu-abonu bat, tarteko pisten mantenua, seinaleen kudeaketa komuna, eta abar), ingurunearen politika komuna eta promoziorako estrategia komuna (turismo-karta eta zerbitzuen aurkezpenerako bideoa bat eginik eta elkarrekin eginak).

g) GEIE Eurodéveloppement

Egoitza Bruselan duen IETE honetara hainbat Estatu kideetako lurraldeetako finantza-elkarte eta toki-erakunde publiko bildu dira. Kasu gehienetan, sektore pribatuko (bankuak, enpresari-elkarteak) partaidetza txikia dute elkarte hauek.

Eurodéveloppement deitu IETEaren helburuak dira enpresak sortzea, enpresen eta lurraldeen artean truke eta elkarlan-sare bat sortzea, eta zerbitzu komunak ziurtatzea (finantza-zerbitzuak bereziki, hala nola proiektuaren finantzazioa).

5.2.6. Regie sarea: IETEn sare europarra

IETEaren promozioarekin batera, informazio-jardun zehatza bideratu behar da. Horrexegatik hartu du Batzordeak egungo IETEEi buruz datu garrantzitsuenak bildu eta eskainiko dituen sarea sortzeko erabakia. Aurreko Batzordearen XXIII. Zuzendaritza Nagusiak bildutako informazioa bildu eta aztertu da datu-base baten bidez eginiko galdeketari esker, eta prozedura horretatik dator ekimenari egokituriko izena: *REGIE*, hau da, *Réseau européen des GEIE (IETEn sare europarra)*.

a) Zeintzuk dira ekimenaren helburuak?

Enpresak eta beste eragile ekonomiko batzuk, hala pribatuak nola publikoak, IETEek nazioz gaindiko lankidetzaren arloan eskaintzen dituzten aukerez sentsibilizatzeko kezka bultzatuta sortu da *REGIE* ekimena. Honenbestez nahi du Batzordeak tresna juridiko komunitarioa honen zabalkuntza ziurtatu, parekorik ez baitu oraingoz. Egoera honetan, hona hemen *REGIE* ekimenaren helburuak:

- egiazko informazio-zerbitzua ziurtatu, enpresa txiki-ertainen aurrean bereziki, IETE baten sorrera eta garapenaren inguruan dauden galdera praktikoei erantzun egokiak emateko,
- IETEaren praktika eta erabilera-molde desberdinei buruzko txostena prestatzea,
- IETEak eta lankidetzarako tresna horretan interesaturiko pertsona guztiak aldian behin bilkurratu.

b) Regie datu-basea: nolako informazio mota aurki daiteke?

Datu-base honek eroldan ditu Europako Komunitateen Egunkari Ofizialean erregistratu diren IETE guztiak. Eskaintzen duen zerranda ez da, beraz, oso xehea, talde batzuek ez baitute

agian egunkari komunitarioan beren erregistroaren berri eman. Erroldan jasoriko informazioak, konfidentzialak horietako batzuk, askotarikoak dira eta estatistika batzuk egiteko aukera ematen dute dagoeneko.

c) Nori zuzenduak dira datu hauek?

Datu praktiko hauek interesgarriak dira hala egungo IETEentzat nola IETEa sortzeko aholkua jaso duten, edo IETEa sortzekotan diren, pertsonentzat. Oso publiko zabala dukete, beraz, datu hauek. XXIII. Zuzendaritza Nagusiak zentralizatu ditu datuak eta informazioak, kontuan harturik Estatu kideetan sakabanaturik iraunez gero oso zaila izango zela haiek Europako Komunitate mailan ikustea.

6. Mugaz gaindiko lankidetzaren bi praktika erreal Euskal Herrian

6.1. Bidasoa-Txingudi partzuergoaren aurkezpena

Bidasoa-Txingudi

Hondarribia, Hendaia eta Irungo Udalek aspalditik duten elkarlanerako esperientziarekin gorpuztu ahal izan da Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Europa Eraikitze printzipio handienetako bat. Elkarlan horrek proiektu berritzaileak dinamizatzea, inbertsio komunak erakartzea eta garapen sozial eta ekonomikorako eredu bat bateratzea du helburu, Bidasoa-Txingudi Eskualdea garatzen laguntzeko.

Lankidetzaren horren aurrekari ugari izanik, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak proiektu juridiko komuna gauzatzen du hiru Udalen partaidetzarekin, eta proiektu hori turismo, kultura eta gizarte esparruan bideratuko da aurrena. Bestalde, ekonomia garapen komunaren erantzukizuna izango du, eta horretarako, enpresen arteko harremanak sustatu, komunikabideak hobetu eta Eskualdea baloratuko duten azterketak egin beharko ditu.

Bidasoa-Txingudi Partzuergoaren errealitateak, alde batetik, Europako Kontseiluaren eta Europako Batasunaren helburua onartu behar du, hau da, herri europarren artean batasun estuagoa lortzea eta herri horien artean lankidetzaren sustatzea Europa eraikitzen laguntzeko bide gisa, eta bestalde, ziur egon behar du hiru udalerrien arteko harremanek lagundu egingo dutela mugaldeko eremuen garapenari balio handiagoa ematen, aurrerapen ekonomiko eta sozialaren esparruetan elkarlana bultzatuz eta elkarren arteko loturak sendotuz.



Bidasoa-Txingudiren ikuspegia.

Premisa horiek kontuan harturik, Hendaia, Hondarribia eta Irungo Udalek, elkarlana eta jarduera komuna bultzatzeko xedean, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa sortu zuten 1998ko abenduaren 23an, Bidasoa ibaiaren bokalean, Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko Udalerriek sinatu zuten Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Administrazioarteko Hitzarmenaren bidez. Partzuergoa toki erakundeak elkartzen dituen erakundea da, izaera publikoko nortasun juridikoa du, bere estatutuen arabera garatzen da, eta estatutu horietan deskribatzen diren helburuak betetzea du xede:

Turismoaren alorrean:

- Hiru udalerrietako turismo-eskaintzaren liburu zuria egitea.
- Turismo-eskaintzan politika komuna zehazteko azterketak egitea.
- Turismo-produktuak sustatzea: publizitatea, feriak, mintegiak, hitzaldiak...
- Partzuergoaren barnean zerbitzu bat eratzea, Bidasoa-Txingudiko Turismo Ekimeneren Zentroa deiturikoa, turismoaren garapenerako elkarren artean jarduerak bideratzeko.
- Hiru udalerrien artean oinezkoentzako eta txirrindentzako lotura bat sortzea.
- Hiru udalerrien artean turismo ibilbide bat sortzea.
- Turismo bokazioa izango duen zerbitzu komuna sortzea.

Kulturaren alorrean

- Egitura pedagogikoak sortu eta kudeatzea, hizkuntzen irakaskuntza hobetzea, eta garapena erraztea.

- Gaitzeko prestakuntza ikastaroak egitea.
- Hiru udalerrietako datu historikoak eta kulturalak bildu eta erregistratzea.
- Historia, kultura eta arkeologia aldetik interesa duten gunek eta lekuen errolda egitea eta baloratzea.
- Kultura, jai eta kirol arloetan elkarren artean ekitaldiak prestatzea.
- Interes kulturalerako beste azterketa batzuk egitea.

Gizarte esparruan

- Bi Estatuetakozko gizarte eta osasun legeriei buruzko informazioa jasotzea, profesionaleri eta hiritarrei aholkuak emateko.
- Zailtasunak dituzten emigranteen kolektiboak hartzeko zerbitzu komuna eratzea.
- Gizarte informaziorako bulego bat sortzea.

Ekonomia garapeneraren alorrean


- Informazio, aholkularitza eta prestakuntza talde bat sortzea proiektuak bultzatzen dituztenentzat eta hiru udalerrietako enpresei laguntzeko. Dauden enpresen arteko harremanak sustatzea.
- Mugaz gaindiko ohiko garraioak antolatzea bidaiarientzat.
- Plataforma intermodala sustatzea eta haren kudeaketan parte hartzea.
- Esparru sozio-ekonomiko, kulturalen... lankidetzak sustatzeko azterketak egitea.

Hiru udalerrien arteko elkarlana antolatzeko xedean, bere zerbitzu administratibo eta teknikoak

informatika sare bati lotzeko ahalegina egingo du Partzuergoak⁵⁷.

Partzuergoan parte hartzen duten hiru Udalen atxikipen maila erakusten duen datu interesgarri bat honakoa da: Partzuergoaren aurrekontuan Udalen ekarpena Irungo Udalak %50 eta Hondarribia eta Hendaia-koak %25ean bakoitzak banatzen bada ere, hiri bakoitzaren hedaduraren proportzioan, botorako eskubidea erabakietan boto banakoa da, berdintasuna ageriz bertan.

Bidasoa-Txingudi Partzuergoak ondoren laburki azaltzen den instituzio eta kudeaketa egitura sortzen du:



Piramide itxurako egiturak agerian uzten du Partzuergoak bultzatzen duen lan dinamika.

Oinarritik hasita, Udaletako arlo ezberdinetako arduradun politiko eta teknikoek Partzuergoko teknikariek batera osaturiko Arlokako Lan Taldeek jardura programak landu eta exekutatzen dituzte.

Irungo eta Hondarribiako alkateordeek Hendaia-ko Udaleko Mugaz Gaineko Harremanetarako arduradun politikoarekin batera osaturiko Zuzendaritza Batzordeak, Lan Taldeek eta Partzuergoaren Talde Teknikoak landuriko jardura proposamenak aztertzen ditu, ondoren akordio proposamenak Batzar Orokorra igortzeko.

Batzar Orokorra bederatzi kidek osatzen dute, hiru kide Udal bakoitzeko, zeinen artean derrigorrez hiru alkateak egon behar duten, urtero

lehendakaritza postua txandatur. Horrez gain, Batzar Orokorra idazkariak eta kontuhartzaileak ere osatzen dute, Partzuergoaren norabide eta akordio nagusiak hartzen dituen maila goreneko organoa bihurtzen delarik.

Partzuergoaren programa eta proiektuen kudeaketaren alorrean azpimarragarria da Partzuergoak eta Bidasoa-Bizirik-ek (Bidasoako Garapen Agentzia) 1999ko urriaren 22an sinaturiko Hitzarmena, zeinaren bidez Bidasoa-Bizirik-ek Partzuergoaren programen kudeaketa bere gain hartzen duen.

6.1.1. Partzuergoaren proiektuak

a) Ibilbide Historiko-Kulturala

Hiru hiriak elkartuko dituen Ibilbide Historiko-Kulturala sortzeko Proiektuak irudi integratu eta batua emango dio Eskualdeari. Ibilbide horretan ondare, historia eta ingurumen aldetik interes handiena duten lekuak nabarmenduko dira Txingudi Badiaren eta Bidasoa Ibaiaren ertzetan barrena.

Bidasoa-Txingudi Eskualdeko leku zoragarrienak bisitatzeaz gainera, ibilbide horretan belaunaldi gazteenek aukera izango dute eskualdearen historia eta errealitatea modu bateratuan ezagutzeko.

Maîtres du Rêve enpresa Proiektu hori aztertzen ari da, eta Eskualde integratua sortzeko ahaleginaren barnean errealitate bat izango da, hain zuzen ere, proiektu hori.

b) Turismoa

Turismoaren esparruan Partzuergoak lortu nahi duen helburu nagusia Guztiontzako Turismo Elkarlanerako Erakunde bat sortzea da. Erakunde horrek Eskualdeko Turismo Bulegoetatik eskainitako zerbitzu guztiak bilduko lituzke, eta guztien ildo estrategikoak batera kudeatuko lituzke, turismo xede bakar eta bereizia sortzeko gogoia errealitate bihurtu dadin.

Horri dagokionez, Noski-Allix Aldi Baterako Enpresa Elkartea azterketa bat egiten ari da, eta azterketa horren emaitzak Partzuergoko kideek eztabaidatuko dituzte, eta onartu ere hala behar badu.

Turismoaren esparruan ere, 1994an Bidasoa-Txingudi Eskualdeko Turismo Bulegoa sortu zenetik, Bidasoa-Turismo eta Hendaia-ko Turismo Bulegoa elkarlanean ari dira Turismo Eskaintza batera sustatzeko.

57. Bidasoa-Txingudi Partzuergoaren Estatutuen 3. artikulua.

Esparru horretan bideratutako elkarlanaren oinarria, alde batetik, turismo eskaintza batera sustatzea izan da, eta horretarako, hainbat publizitate formatu eta produktu erabili dira (CD Hirien hiria, Eskualdeko Turismo Foiletoa, Club Sabor Bidasoa Foiletoa...). Era horretan, turismo aldetik eskualdea sustatzea lortu da ikuspegi eta planteamendu bateratu batetik abiatuta, turismo xede bakar, bereizi eta osagarri gisa hartzen baita Eskualdea.

Bestalde, Feria, Promozio Karpa eta Work Shop-etara elkarrekin joatea, Nazioarteko Erakustazoka, SITC, Expovacaciones, esate baterako, etengabeko dinamika izan da, eta dinamika hori urtetik urtera areagotzen joan da, eta oso garrantzitsua izan da Bidasoa-Txingudi Eskualdea turismo xede bakar gisa ezagutzera emateko.

c) Gizarte arloa

Gizarte lan-taldea hasi berria da, baina 2000. urtean gaixotasun genetikoaren aurka borrokatzeko ikerketa sustatzeko Frantzia egin zen nazio mailako ekimen baten esparruaren barnean, abenduan *Teleton 2000*-n parte hartu zuten Partzuergoak, jardunaldi bat antolatuz. Txingudi Egunean, Elkartearen Foroan Stand bat jarri zen Irun eta Hondarribiko hiritarrek kontu horri buruzko informazioa jaso ahal izateko.

Bestalde, hiru udalerrietako gizartekintzako zerbitzuen eta Partzuergoaren artean azterketa bat egiten ari da 2001ean lankidetzarako sektore zehatz posibleak hautematearren. Dagoeneko hainbat ideia jaso dira informazioa, izaera bereko instituzioak, haurrentzako aisiarako zentroak, jubilatutako adinekoen etxeak, adin txikiko haurren zentroak, toxikomania eta delinkuentziaren prebentzioa bezalako alorrean elkarrengana hurbiltzeko eta urrutitatu dauden auzoak integratzeko.

Mugaz Gaiandiko Partzuergoaren jardueraren sektore handietako bat, bere estatutuaren jasotzen dena, gizarte sektorea da, oraindik oso gutxi landu bada ere, Frantzia eta Espainian administrazioaren alorrean dauden aldeek zailtasun handiak sortzen dituztelako.

d) Kultura

Txingudi Eguneko ekitaldiak prestatzen jarraitu eta hiru hilean behin kultur foiletoak argitaratzeaz gainera, Partzuergoak urteko kultur programa diseinatzen du. Programa horretan hainbat kultur diziplina bilduko dira (musika, dantza edo antzerkia), gure kultur proiektua eta proiektu berritzailea izango dena sortu ahal izateko, eskualdeko kultur jardueraren aberatsaren ispilu eta kulturaren esparruan egiten den elkarlanaren katalizatzaile izango baita proiektu hori.

e) Kirolak



Rugby diziplinan eta junior kategorian edota Sofballean iaz sortuko ziren Bidasoa-Txingudiko lehen Selektzioak, kirol desberdinetan selektzio gehiago sortzeko lehen urratsa izan dira; futbolekin, esate baterako, López Ufarte Futbol Txapelketaren hurrengo ediziorako.

Era berean, entrenamenduak elkarrekin egiteko edo taldeen plantilak hiru udalerrietako kirolariekin osatzeko hiru hirietako klubaren arteko elkarlana errealitate izaten hasi dela ikusteak ilusioa egiten du.

f) Zakarrak

Hiri Hondakin Solidoen Gestioa eta Tratamendua Eskualdeko arazo handienetako bat da, batez ere Komunitatearen legeria berriaren eskakizunak kontuan hartzen badira eta jakinik datozen urteetan San Markosko eta Urruñako zaborteak itxi egingo direla. Horrenbestez, arazoari ahalik eta azkarren eman behar zaio konponbidea.

Horri dagokionez, 2000. urtean Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoak eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatea azterketa bat egiten hasi ziren, Bidasoa-Txingudi Eskualdean hiri hondakin solidoen gestioa bateratua planifikatzeko. Desarrollo Protección Ambiental, S.L. enpresari esleitu zitzaion azterketa lan hori.

g) Hiritar eta Enpresen Atentziorako Zerbitzua

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoak gauzatu nahi duen proiektu handizaleenetakoa Eskualdea informatika sare batean sartzeta da; hau da, Irungo Udalaren HAZaren esperientziatik abiatuta, eta informazio eta komunikaziorako teknologia berriak erabilia, hiritarrei eta enpresei aukera eman nahi zaie udal zerbitzuetara iristeko, udal jarduerari loturiko

tramiteak egiteko eta hiru hiriak elkartuko dituen sare informatiko horri lotuta egoteko.

Horretarako, Irungo Udala eta Bidasoa-Activa azpiegiturak, teknika beharrak eta administrazio eta eskuduntza mailan hiru Udaletan dauden aldeak bateratzeko modua aztertzen ari dira, informatika sare eraginkorra eta egokia sortu ahal izateko.

h) Lan eta Formakuntza arloa

Enpleguaren eta Prestakuntzaren alorrean, proiektu nagusia Ducoureau Etxea berritzeko sortu den Enplegu Tailerra da. Etxe hori Kontsuletxe frantsesaren egoitza izan zen eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren eta Adebisaren egoitza izango da etorkizunean.



Enplegu Tailer horren barnean, Eskualdeko 32 langabetuk parte hartzen dute hainbat modulutan, igeltserotzan, energia fotoboltaikoetan edo ordenadoreak birziklatzen, esate baterako. Horrenbestez, pertsona horiek esparru horietan prestatuko dira eta Ducoureau Etxea berritzeko lanetan arituko dira.

i) Komunikazioaren lan esparrua

Komunikazioaren esparruan benetan garapen dinamikoa ari da gertatzen 1995. urtean Bidasoa-Txingudi Aldizkariaren lehen alea argitaratu zenetik.

Bidasoa-Txingudi Aldizkariaren lehen alea 1995eko apirilaren 7an argitaratu zen eta 10.000 aleko tirada izan zuen hasieran. Erabiltzen diren hiru hizkuntzak kontuan hartuta, Eskualdearen errealitatea modu bateratuan aurkeztea du helburu aldizkari honek.

Aldizkaria garatzen joan da eta 2000. urtean 25.000 aleko tirada egin da, hiru hirietan doan banatzeko. Bi hilabete behin argitaratzen da, formatu erakargarri eta dinamikoa du, eta eutsi egiten zaie sortzean lortu nahi ziren helburu nagusiei.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren barnean, berriz, aldian-aldian hainbat jakinarazpen helarazten zaizkie hiru udalerrietako teknikari eta zinegotziei, guztiak informatuak egon daitezten eta Partzuergoaren proiektuari laguntzeko lanean kontzientzia daitezten.

Era berean, Kirol Lan-taldeak eginiko bileren eta bilera horietan hartutako erabakien berri ematen zaie Eskualdeko kirol klubei. Kirolaren alorrean, Eskualdeko klub guztiak jasotzen dituen datu-basea sortzeaz gainera, 2001. urtearen hasieran kirol azpiegituren gida argitaratuko da. Gida horretan Eskualdean dauden kirol azpiegitura guztiak bilduko dira, eta baita Bidasoa-Txingudin kirolaren alde lan egiten duten klub eta agente aktiboek buruzko informazioa ere.

Azkenik, Web orriak (www.bidasoa-txingudi.com) Partzuergoaren jardura bildu nahi du Eskualdeko biztanle guztiak eta proiektu polit hau interesatzen zaien guztiak ondo informatuta egon daitezten, proiektu hau aberasteko beren iritziak eta ideiak eman ditzaten, eta gure esperientziaz balia daitezten.

j) Informazio Puntua

Mugaz Gaindiko Informaziorako Guneak Hendaian bizi diren Bidasoa ibaiaren hegoaldeko biztanleei (biztanleen %25) laguntza emateko tresna izan nahi du, administrazio eta zerga mailan hainbat zailtasun baitituzte eta modu erosoan bizi ahal izateko informazio euskarri bat behar baitute.

Hendaia Udalaren Mugaz Gaindiko Harremanetarako Zerbitzuaren bulegoetan ari diren langileek beharreko informazio guztia emango diete interesa duten pertsonen, aldeztatik hitzordua hartuz gero.

k) Garapen ekonomikoa

Bidasoa-Bizirik-ek eta Hendaia Udalak egindako Hitzarmenetatik abiatuta, lan-dinamika bateratu bat sortzen hasten da, Bidasoa Biziriken zerbitzuak Hendaia enpresei ere emateko, eta horrela, bere lana Bidasoaz iparraldera hedatzeko.

Zehazki, eta proiektu definitu modura, **Pyme Bidasoa-Txingudi proiektuak** BAIBI len parte hartzen duten enpresen egungo egoera aztertzea planteatzen du, eta bere beharrei erantzutea, lehen merkataritza-harreman bat izan ondoren edota frantziar enpresek inportatu ondoren. Azterketa hau horrela egingo da:

- Lehen esperientziatik aurrera egindako kontaktu-kopurua.



Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiarduko Partzuergoaren web orria (www.bidasoa-txingudi.com).

- Kontaktumotak. Helburua merkataritza-harreman egonkorak hastea da, bere enpresa-politikaren parte izan daitezen, eta bere nazioartekotasuna eta lehiakortasuna bultzatzea.
- Ezarritako harremanen satisfakzio-maila.
- Etorkizuneko estrategia. Merkataritza-kontaktuen helburuak, lehenetsuneko sektoreak, enpresa-motak, ...
- Konklusioak.

Azterketa honen bidez, esportazio helburuarekin enpresa-talde bat sortzea bideragarria den zehaztu nahi da. Balorazio hori egiteko lortutako datuak, Bibi Ien parte hartzen duten enpresen lankidetzazuzena eta merkataritza-harreman egonkorak eskualdeko enpresen esperientzia hartuko dira kontuan (esperientzia-transferentzia, aholkularitza...).

Datu eta esperientzia bilketak lan-nukleo bat bideratuko du. Lan nukleo hori osatuko dute: Bidasoa-Bizirik, Baionako la Chambre des Métiers-ek, Baibi Ien parte hartzen duten enpresek eta merkataritza-harreman egonkorak duten enpresek. Lan talde horrek talde batek esportatzeko duen bidegarritasuna aztertuko du egoera-azterketaren konklusioetan oinarrituz, eta aplikazio-irizpide batzuk proposatuko ditu, aldeaz aurretik aukeratutako 20 enpresetan aplikatzeko.

Inplikaturako herri-erakundeekin koordinaziopean eta laguntzarekin egingo dira azterketa horretarako datu-bilketa, inkestak eta Akitania/Euskadiko enprekin eduki beharreko kontaktuak (Adebisa, Baionako Merkataritza Ganbara, la Chambre de Métiers). Prozesu honetan enpresentzat garatu diren baliabideak

erabiliko dira, adibidez, **Bidasoa bizirik On-line Intraneta**, Bidasoa bizirik toki-garapenerako agentziak Irun eta Hondarribiako enpresei egun eskaintzen dien zerbitzua. Zerbitzu hau Internet bidez eskaintzen da eta unean bertan enpresentzat interesa duen informazioa eskuratzeko aukera ematen du. Helburu nagusia Pymesen gestioa hobetzea, eta horien eguneroko gestioan Informazio eta Komunikazio teknologia sartu eta bultzatzea da. Pymesetan atzemandako informazio-beharrei erantzuten dio eta bere helburu nagusia enpresei egokitutako tresna malgu bat izatea da.

Era berean, elkartekide diren **enpresen artean komunikazio-gune bat** izateko aukera ematen du enpresa-direktorio bat sartuz, baita enpresa eta toki-zerbitzu publikoen artean ere (garapen-agentzia, toki-agintariak).

6.2. Baiona-Donostia Euskal Eurohiria

6.2.1. Aurkezpena eta helburua

1993ko urtarrilean, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Biarritz-Angelu-Baiona Hirialdeko –orduan Distritua– arduradun gorenek akordio bat sinatu zuten⁵⁸, eta akordio horren arabera, mugaren bi aldeetako erakundeekin artean lankidetzazuzen sustatzeko konpromisoa hartu zuten sinatu zuten aldeek.

Lankidetzarako proiektuak erantzun egokia eman nahi die Merkatu Bakarrak ekarriko dituen erroketari, eta Baiona-Donostia konurbazioa egoera lehiakorrean ezarri nahi du hiri sistema europarrean.

Muga fisikoa desagertzeak ez du esan nahi muga horrek denboran zehar eragin dituen disfuntzionalitateak automatikoki desagertuko direnik. Alde bakoitzak bere egiturak ditu lege, ekonomia eta administrazio mailan; sistema kultural eta mentalak desberdinak dira; hirigintza garapenak ere guztiz desberdinak diren ereduak erantzuten die, eta hizkuntza mailako aldeak dira bi gizariek elkarri bizkarra emanda bizi izaten lagundu duen beste elementu bat.

Horretan oinarritzen da bi aldeetako agintariak lortu nahi duten helburua: 50 Km-tan zehar, Baiona eta Donostia artean luzatzen den hiri errealtatea eraldatzea, elkarren ondoan dauden egitura administratibo desberdinak baino ez gaur egun, eta 600.000 biztanleko hiri europar berri bihurtzea.

58. EHAAn argitaratua, 1998ko urtarrilaren 28ko Gobernu eta Parlamentuarekiko Harremanetarako Idazkaritzaren 3/1998 Ebazpenaren bidez.

ARZELUS, A.; MOREDA, H.; SARAGUETA, F. Muga: gainditzeke dagoen errealtatea. *Eleria*, 8, 2001, 37-63

Horretarako, beharrezkoa da lurraldearen interpretazio globalagoa egingo duen klabe berri bat edukitzea. Baztertu egin behar dira dauden disfuntzionalitateak, barne neutralizazioak, azpiegitura batzuetan sortzen diren bikoiztasunak, eta plangintza bateratua sustatu behar da konurbazioa behar bezala antolatu eta erdi mailako hiri europar bati dagozkion ekipamenduak eta zerbitzuak izan ditzan.

6.2.2. Adostasun-metodologia

Jakinik egitura administratibo konplexua dela eta konurbazioaren lurraldean hainbat eskuduntza maila daudela, administrazioen arteko adostasun-eredu batean oinarritzen da proiektua.

Instituzioen artean adostasuna bilatzeko lanaren emaitza gisa honako maila hauek hartzen dute parte: tokikoak (konurbazioko udalak), foru edo departamentukoak (Foru Aldundia eta Conseil Général des Pyrénées Atlantiques), lurraldekoak (Eusko Jaurilaritza eta Conseil Regional d'Aquitaine) eta Estatukoak (dagozkien gobernu zentralak). Gainera, aipatzekoa da Proiektu hori proiektu pilotuzat hartu dutela Mission Opérationnelle Transfrontalière erakundeak, CDC-k sustaturiko erakundeak, Ministère de l'Équipement ministerioak eta DATAR, lurraldearen antolamenduaren ardura duen Frantziako Gobernuaren Ministerioarteko erakundeak.

Proiektuak bere egiten du Europako Batzordeak mugalderako lurraldeei eginko enkargua, Europa eraikitzekeko laborategi bihurtzeko iradoki zientean. Komeni da gogoan edukitzea mugalderako eremu zaharrak direla, hain zuzen ere, Akta Bakarrak, ordura arte mugek sortutako oztopoek bereizten zituzten errealitateen artean elkartzea eragin nahi duen lehen espazioak. Horretan oinarritzen da izaera periferikoa gainditzeko Eurohiriaren interesa, ekintzak ikuspegi europarretik hartuta, eta horrexek eragin du INTERREG ekimenaren bidez eta DGXVI-etik, Lurralde Politiken Zuzendaritzatik jaso duen aintzatespena.

6.2.3. Mugaz Gaindiko Agentzia: tresna juridiko eragilea

Baionako Ituna hor egon arren, lehen azalduetako planteamendu horretatik nahiz beharrezko hausnarketa estrategikotik etorritako mugaz gaindiko jardueren inplementazioak beste zailtasun batekin egiten du topo, hau da, tresna juridiko espezifikorik ez dagoela mugaz gaindiko lankidetzatik etorritako ekimenak babestu eta bideragarri egiteko.

Beste muga europar batzuetan ere ematen den eragozpen horri Eurohiriaren kasuan

konponbidea eman zaio aldi berean Espainiako eta Frantziako ordenamendu juridikoetan, eta baita komunitarioan ere, jasotzen den irudi baten bidez: interes ekonomikoko talde europarrak (IETE). *Baiona-Donostia Euskal Eurohiria Garatzeko Mugaz Gaindiko Agentzia* osatu da IETE baten moduan, eta horri esker, eguneroko jardunean ez dugu bi ordenamendu, hau da, administrazio prozedura espainiarra eta frantsesa, kontuan hartzeko beharrezkin topo egiten, eta nahikoa arin jarduteko aukera ematen du dagozkion instituzioetako arduradunek onartutako jarduerak abiarazi eta gauzatzeko orduan.

6.2.4. Gogoetatik ekintzetara

Plangintza estrategikorako prozesu hauetan gertatzen den bezala, mugaz gaindiko lankidetzarako proiektuak proposatu dituen metodologiak eta estrategiak inplementazioaren erronka dute aurrean. Jardun teoriko hutsa ez da aski hiri berri baten garapenaren aurrean gaudenean, eta gauza izan behar da muga zaharraren bi aldeek lurralde honetarako erabaki duten ordezkari berria sektore-jardueren eskalara eramateko.

Lehen urrats gisa, gogoeta egin eta mugaz gaindiko plangintza aurrera eraman daitekeen sektore-esparruak hauteman dira. Puntu horretan ezinbestekoa da nolabaiteko eskuduntza duten administrazio guztien adostasun instituzionala edukitzea, lehen adierazi den bezala, metropoli izaerako interpretazio berri horrek eragile naturalak izatea eskatzen baitu.

Jarduerari dagokien aldea bi ataletan sailkatzen da: alde batetik, sektore-esparruak planteatzen dira, eta bestetik, jarduera egituratzaileak deiturikoak sartzten dira.

a) Sektoreen arabeko politikak

Proiektuak garatu nahi duen "hiri eremu funtzionalaren" kontzeptua bideratzeko lehen jarduerak jasotzen dira atal honetan, aurrerago aipatzen den eskema europarraren aplikazio gisa, eta jarduerarako lurralde-maila guztien artean adostutako erabakitzekeko prozesu baten esparruan aplikatutako sektore anitzetarako politika baten lehen aurrerakin gisa.

Sektore-esparru batzuetako arduradunei plangintza-eremu berria proposatzea izan da lehen urratsa. Kasu guztietan, lehen hartu-emanean, jendea elkartzeaz gainera, alde bakoitzak duen egiteko modua aurkeztu da: bakoitzaren legeria, bakoitzaren eskuduntza eta administrazio-mailak, eta baita lurralde eta sektoreen arabeko planak ere. Guztiek jokorako arau berriak onartu ondoren, osagarritasun aukerak aztertu dira eta balizko erantzunei ekin zaie hiri berria ikuspegi globalago batetik begiratuta.

Osatu diren sektore batzordeak jasotzen dira oso labur:

Ingurumena. Sektore-esparru batek lurralde komun eta bakar baten errealtatea islatzen badu, hori ingurumena da, konurbazioko aireak, kostaldeak edo mendiek ere ez baitute zatiketa administratiboetaz ulertzen. Sektoreetako arduradunak jarduera komun bat bideratzeko aukerak eztabaidatzen ari dira, hala prebentzio gaietan nola baliabide hornidura eta ingurumen heziketaren alorretan. Aurtengo apirilean osatu da Eurohiriko Ingurumen Tailerra, eta honako lantalde hauek osatzen dute tailer hori: Hiriko ingurumena, Espazio naturalak eta berdeguneak, Urak eta hondartzak, Hondakinen gestioa eta Ekoizpen garbia eta egiaztapena, eta ingurumen heziketa eta prestakuntza.

Kultura. Hainbat programazio osatzen, proposamen bateratu berriak aztertzen, eta muga zaharra iragazkortzen hasi da, hiritarrei beste aldeko kultur ekitaldiak helaraziz. Soilik 30 minutura programazio aberatsa aurkitzen hasi dela erakusten du errealtateak.

Turismoa. Biarritz eta Donostia, Europan lehen mailan dauden bi turismo eraginkorrak, hasi dira sinergiak eta osagarritasuna bilatzen. Eurohiriak bere turismo marka sortu du: *Côte Basque-Euskal Itsasertza-Costa Vasca*, eta turismoa batera sustatzen hasi dira.

Gizarte Zerbitzuak. Gizarte politika bideratzeko bakoitzak dituen moduak besteak ezagutu ondoren, lehen emaitzak jasotzen hasi dira haurtzaroaren esparruan.

Sinergiak ekonomia mailan. Alde bateko eta besteko enpresen artean dauden balizko sinergia espazioak hautemateko eskatutako lehen azterketaren emaitza jaso da duela gutxi. Argi geratu da agente ekonomikoek ez dituztela batere ezagutzen auzokoak, eta osagarritasun aukera batzuk sumatzen hasi dira.

Garraioak eta azpiegiturak. Horiexek dira aurrerago azalduko den lurraldearen antolamenduari buruzko gogoetaren zati handiena. Garbi dago bi gai horiek ezin direla bereiz bideratu; pentsatu bestela abiadura handiko trenetan. Topoa Baionaraino "luzatzeko" aukera planteatzen hasi da. Hori Europako hiri moderno bateko metro arinaren parekoa izango litzateke eta Eurohiriaren benetako bizkarrezurra izango litzateke.

Kirolak. Nolabaiteko kutsu teknokratikoa izan lezaketen, edo gutxienez, epe motzean hiritarren pertzepziotik urrun dauden planteamenduekin batera, lankidetzaren proiektua Eurohiriaren ikuspegi globaletik begiratzen hasi da kirola. Esparru horretan muga historikoak gainditu nahi badira, zerotik abiatu behar da eta

molde berriak planteatu behar dira kontu aruntenetan: aseguruak, federazio lizentziak, esparruen erabilera eta abar.

Etxebizitza eta habitataren behatokia. Etxebizitzaren arazoak eragiten duen hiritarren mugimendua errealtate bat da Gipuzkoa eta Baiona-Landak korridorean. Fenomeno hori aztertu egin behar da bai jarduera zehatzak planteatzeko, bai alde bakoitzeko modu onak ikasteko.

Osasun publikoaren behatokia. Bi aldeetako Osasun arduradunak gogoeta egiten hasi dira Osasun Publikorako politikak bateratzeari begira. Epidemiologia eta finantzarako informazio sistema bat osatu da Osasunaren behaketan laguntzeko, Gipuzkoa eta Baionako osasun eskualdearen arteko espazioan Osasuna modu arrazional eta eraginkorragoan kudeatzeko adostutako ekintza batzuen aurreko urrats gisa.

b) Lurraldeko jarduera egituratzaileak

Bestalde, izaera egituratzaileko jarduerak deiturikoak aipatzen dira. Jarduera horiek proiektua osotasunean hartzen dute eta zeharkako jarduera lerroa zehazten dute multzorako. Aipatzekoak dira:

Eurohiriaren web orria. Orain dela urtebetez geroztik Eurohiriak bere web orria jarri du Interneten. Informazioaren teknologia berriek, proiektuak epe luzera errealtatean sortu nahi duena: hiri berri bat esparru birtualean aurreratzeko aukera eman digute. Ildo horretatik, web orriak sare bat osatu du bi aldeetako sektore, ekonomia, kultura, turismo eta instituzio agenteekin, eta agente horientzako munduarekiko erakusleho bihurtzen da Eurohiriaren orria. Beste nortasun ezaugarri bat, informazio guztien geo-erreferentziazioa da, hau da, espazioan egokitu daitekeen edozein informazio mapetan kokatzeko aukera ematen dio orriak erabiltzaileari.

Eurohiria neurtzeko adierazle-sistema. Arian-arian, behaketa sistema bat osatzen ari da hainbat sektore-esparrutan, Osasuna edo Etxebizitza esparruetan, esate baterako. Esparru horietan, bi aldeetako diziplina bakoitzaren arduradunek gaien arabera behatokiak abiarazi dituzte sektore-politikak elkarrekin abiarazi aurreko urrats gisa. Ildo horretan, aipatzekoak dira euroak mugaz gaindiko espazioan izango duen eragina neurtzeko hasitako behaketa-lana, eta aspaldi ez dela abian jarri den etxebizitzak eragindako mugimenduaren azterketa.

Lurralde antolamenduaren gogoetarako Atelierra konurbazioaren espazioan. Hurrengo atalean garatuko da alderdi hori.

6.2.5. Konurbazioko lurraldearen antolamenduari buruz gogoeta egiteko "atelierra" eta Liburu Zuria

a) Aurkezpena

Lehen aipaturiko disfunczionaltasun horiek esanahi berezia dute lurraldearen antolamenduaren ikuspegi globaletik begiratuta aztertzen direnean. Gaur egungo errealitatea zera da: alde bakoitzeko tresna, arau eta plan guztiak Bidasoan amaitzen direla bat-batean, eta horrek loturarik eza ekartzen du ikuspegi zabalago batetik hartuta.

Eurohiri berria osatzeko erronka aurrera eramateko, sektore-politikak estrategia komun baten elementu gisa hartuko dituen nukleo bat behar da, eta era berean lurralde hedadura kontuan hartu behar da. Mugaz gaindiko lankidetzaren instituzio arduradunek lan hori eman diote *Konurbazioko lurraldearen antolamenduari buruz gogoeta egiteko Atelierra* deiturikoari.

b) Gogoetaren inspirazioa ikuspegi europarrean

Eurohiriaren proiektua guztiz solidarioa da, eta badaki mugaldeko lurraldeak bereziak direla Europa eraikitzekeo prozesuan eta laborategi-eremuaren izaera dutela prozesu horretan. Horregatik, mugaz gaindiko espazioaren antolamenduari buruzko gogoeta guztiak esparru europarretan lurralde antolamenduari buruz egiten ari diren gogoeten barnean eta esparruan inspiratu eta sartu dira. EUROPA 2000+ bezalako dokumentuetan eta Lurralde Estrategia Europarra, LEE, - European Spatial Development Perspective, ESDP bezalako dokumentu berrienean gorpuztu dira gogoeta horiek.

Lurralde Estrategia Europarrak adierazten duen bezala, mugaldeko eremu zaharretan lurralde ikuspegiak muga nazionaletara heltzea dakar, eta esparru berri horretan bideratu nahi du Eurohiriak gaien araberako aukeren integrazioa. Europako Batzordeko arduradunekin eta lurralde europarraren antolamenduan jakitun direnekin harremanak izan ondoren, Eurohiriak proiektu zehatz bihurtu nahi ditu Lurralde Estrategia Europarrak proposatzen dituen gogoeta ildo handiak, eta hori guztia "garrantzi europarreko" eremu batean, 1999ko maiatzean Potsdamen onartu zen dokumentu ofizialak jasotzen duen bezala.

c) 1998ko ekaina: Liburu Zuriaren enkargua

Lehen adierazi den bezala, alde bakoitzak bere tresna juridiko eta legalak ditu lurraldea antolatzeko. Garbi dago tresna horiek batu edo elkartu besterik egiten ez badira oso zaila izango

dela emaitza batere koherentea lortzea. Horrenbestez, etorkizunean Eurohiri osorako "Schéma Directeur" bihur litekeenaren hastapen gisa enkargatu zen Liburu Zuria. Proposamenek maila juridikorik ez badute ere, enkarguaren birtualitatea instituzioen arteko adostasunean oinarritzen da lehen gogoeta hori eskatzeko. Partekaturiko borondate horretatik abiatuta soilik jasoko dira Liburu Zuriko proposamenak alde bakoitzean indarrean dauden plangintzetan.

Hirigileek eta diziplina anitzeko jakitunek nazio biko izaeraz osatzen duten Erredakzio Taldeak enkargua bere gain hartu du, eta hiri sistema europar eta atlantiarrean maila onean egon nahi duen metropoli bat eraikitzekeo prozesuaren sortzaile eta praktika bihurtu nahi du Liburu Zuria.

d) 1999ko uztaila: diagnostiko partekatua

Erredakzio Taldeak, Mugaz Gaindiko Agentziarekin batera, aurrerakina landu eta egiaztatzen du instituzioetako arduradun eta teknikariek, eta baita jakitun profesional eta Unibertsitateetako akademikoekin ere, Batzorde Teknikaria eta Zientzia Batzordea deiturikoetan. Lanaren lehenengo 12 hilabeteetan Taldeak hainbat dokumentu sortu ditu; lehen lankidetzaren dokumentu batek elkarrizketa planteatzen du, eta geroago, 1999ko uztailan, alde aurreko lanen laburpen bat aurkezten da. Laburpen horretan espazio honetan mugaz gaindiko lankidetzaren bilakaera garatzen da lehenengo, zein oinarritatik abiatzen garen ulertzeko eta zein tresna dauden, eragozpenak, disfunczionaltasunak eta erronkak zein diren jakiteko. Bigarren, dokumentuak Eurohiriaren proiektua tresna estrategiko gisa hartzen du, eta hartan oinarrituta eraiki behar da mugaz gaindiko lankidetzaren hirugarren milurtekoaren atarian. Horretarako, hiri politika europarraren fenomeno eta faktore determinatzaileak hartzen dira erreferentziatza, eta bereziki, interes orokorreko zerbitzuen harmonizazio eta liberalizazio prozesu komunitarioak. Kontuan hartzen diren beste alderdi batzuk hiritar europarrei edukia emateko beharra eta hiriaren gobernatzekeo tresnak zehaztekeo beharra dira. Azkenik, dokumentuak Eurohiriaren lurraldera lehen hurbiltze bat egiten du multzoaren diagnostiko partekatua egiteko ahaleginean, horretan oinarrituta hiri berria: Eurohiria, pentsatzeko modu berria planteatu eta gara dadin.

e) 2000ko ekaina: Harrera Liburu Zuriari

1999ko ekainean, Taldeak bere proposamenak aurkeztu zituen eta eztabaida luzea ireki zen Instituzioen, Unibertsitateen eta Mugaz Gaindiko Agentziaren artean. Lan elkarreragile horren emaitza gisa, 2000ko ekainean Talde Erredaktoreak Eurohiriaren Liburu Zuriaren dokumentua aurkeztu zion Batzorde Instituzionala deitutakoari. Foru eta Departamentu

mailetako udal instituzioetako arduradunek eta Lurralde Gobernuetako ordezkariak eta Paris eta Madrilgo Gobernuetako ordezkariak osatzen dute Batzorde hori.

Hiri berria eraikitzeko lehen proposamenak dira. Batzuetan berehala aplikatu daitezkeen jarduerak jasoko dituzte proposamen horiek; beste batzuk, berriz, epe erdi edo luzera aplikatu ahal izango dira. Proposamenetako batek azterketa berriak egitea ere eskatuko du agian.

Hiru dira Liburu Zuriak proposatzen dituen helburu estrategikoak:

- Intermodalitate, komunikazio eta informaziorako plataforma atlantikoa osatzea, egungo iragaitzako korridorea garapenerako eurokorridore bihurtuz.
- Metropoli lineal polizentrikoa egituratzea sarean. Horretarako, espazioaren gestioa abian jarri behar da, eta Europa mailako metropolien eskakizunei erantzungo dieten artikulazio eta kalitate maila izango duten azpiegiturak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaini behar dira.
- Ondare naturala babestu eta balioa ematea, "metropoli berdearen" kontzeptuari aplikatutako ingurumen bikaintasunaren bidez.

6.2.6. Lurralde informaziorako sistemak integratzeak duen garrantzia

Bi aldeetako lurralde informaziorako sistemen (LIS) inertzia, egituratu gabeko errealitate baten beste adibide garbia zen. Kartografiak garbi erakusten zuen errealitatea beste aldean orban bat, lauso samarra, marrazturik.

Lurralde informaziorako zerbitzuak gogor aritu dira lanean datu geografikoak homogeneizatu eta datu-base bat sortzeko asmotan. Datu-base horretan oinarrituko litzateke informazio geografikorako sistema komuna. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta BAB Hirialdeak emaniko informazioa eta Frantziako Institutu Nazional Geografikoaren 1:25.000 oinarri kartografikoan oinarrituta egin da mugaz gaindiko lehen mapa 1:50.000 eskalan. Informazio osoa digitalizatuta egoteak aukera ematen du, besteak beste, informazio geografikoa Interneten bidez hedatzeko. Horixe da Eurohiriaren web orriaren "<http://www.eurociudad-vasca.org>" berezitasunetako bat: orri horretan informazio guztia geo-erreferentziatua azaltzen dela, eta erabiltzaileak baditu web orriaren edukiak kokatzeko mapak. Era berean, Eurohiriaren ortoargazkia egin da 1:25.000 eta 1:50.000 eskaletan.